

2024ko apirila | 246. zenbakia

aiKor!

txorierriko aldizkaria

Amets
zuri-gorria

ONDO PASA DERIOKO JAIETAN!

kafetegia-harburgesa

pozgarri

Gernikako Arbola, 4 (DERIO)
94 454 35 99

TXEPETXA aek ■ euskaltegia

aek

Ondo pasa jaietan!
Eutsi euskaraz berba egiteko konpromisoari

Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

**ZIRIKADA
JAIETXEA**

www.zirikadaderio.com
94 454 50 45
Gaztelumendi Plaza, 1 DERIO

electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Ugaldeguren ind. 1, 5 pab. 12 B DERIO
t: 944 543 148

tximintx
KOMUNITATEA

**DERIOZTARTU
ZAITEZIE!**

Arteaga ESTANKOA

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel: 94 454 15 41
estancoderio@gmail.com

Zorionak eta urte berri on

ISIDRO DEUNA JAIETAZ GOZATU LAINOMENDIREKIN

Maiatzak 11 · 19:00
DANTZA-POTEOA, Piperdun eta Kukudantza taldeekin batera, San Isidro elizatik hasita.

Maiatzak 12 · 18:00
DANTZA ERAKUSTALDIA, udaletxeko enparantzan.

LAINOMENDI
1989

DERIO
JAI BATZOKIA

4	Iritzia + Gutuna
5	Laburrak
13	Elkartek
14	Protagonista... Violeta Perez Manzano
16	Gaztea eta... Aitor Remirez
16	Menditik patxadaz... Burdinolak
18	Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
20	Gai nagusia
24	Derioko jaiak
28	Zamudioko jaiak
32	Emaús
33	Teknologia
34	Herbarioa
36	Sukaldaritza
37	Denborapasa
38	Maiatzeko Agenda



14 Violeta Perez Manzano



16 Aitor Remirez



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea) 944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561 aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Maketatzailea: Aner Mentxaka

Kolaboratzaileak: Jon Legarreta, Beste Bira, Xabier Díaz, Txoribikers, @txiribita_mundi, EMAUS, Idoia Andrés, Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka.

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Andoni Solorzano

Publizitatea: Iratxe Pirla (688 782 642)


Banaketa: Eragin

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik



JON LEGARRETA
Zientzia Fisikoetan doktorea

Zu zara nagusia!

2024ko apirilaren 6ko gauean, bilbotar, bizkaitar eta oro har mundu osoko Athletic-zaleen bizitzan, 40 urte itxaron behar izan dugun ametsa egia bihurtu zen: Athletic berriro ere kopako txapelduna!

Alde batetik, Athleticen gure bizitzan daukan eragina izugarria da; ez bakarrik Athleticen bazkideen edo zaletuen artean, baizik eta futbolzaleak ez direnen artean ere bai. Askotan entzun dugu "ni ez naiz futbol-zalea, baina bai Athletic-zalea". Zelan izan daiteke hori? Zelan sortu dezake futbol-talde batek halako sentimen-

dua bizkaitar gehienengan? Nire ustez, bi arrazoi nagusi daude. Lehenengoa da txikitatik etxean, familia artean, Athleticen kide bat bezala ikusaraziz. Bigarrena da soilik bertoko, Euskal Herriko, jokalariekin jokatzeko duela; munduko talde bakarra da, gainera, gaur egungo nazioarteko futbol-industria honetan. Beste aldetik, lortutako 25. kopa honek berrituko du gabarraren istorio zaharrak entzunda zituzten gaur egungo gazteen zaletasuna, ondorengo belaunaldiei ozenki hau zabalduko dietenak: Athletic, zu zara nagusia!

GUTUNA

Gora kirola



GONTZAL JAUREGI MARTIN
Kirol langilea

Txorierriko eta Bizkaiko udal-kiroldegietako langileen egoera ez da baxerik samurra izaten. Orain dela bost urte antzera ibili ginen. Hitzarmen kolektibo duina amets, prekaritatea da hitza: prekaritatea da egunero jasaten duguna.

"Egin kirola, zaindu osasuna!" dioen kartel baten aurrean nago, kiroldegiko atean. Hala ere, kirol-langileok ez gaitu inork zaintzen.

Goizean jaikitzen naiz, saioa prestatzen dut, eta kalera. Ariketa erakargarriak lantzen ditut, kiroldegiko erabiltzaileekin kirolaz gozatzen naiz... Hurrengo saioa hiru ordu barru izango da. Kafe bat. Hurrengo kiroldegira joaten naiz, autoz, garraio publikoa hartuz gero, ezinezkoa baita garaiz heltzea. Hura ere udal-kiroldegia da. Giro herrikoa eta jende jatorra dago, eskerrak! Zeinen lan (politita) egiten dugun, osasuna eta ongizatearen alde.

Arrastian beste saio bat izango dut, eta zorterik badago, ordezkapen bat: oraindik ez dut ezta lanaldi erdiko kontraturik ere. Bihar, pilates eta hipropesiboak: 1 + 1 = 2 ordu lan egingo ditut egun osoan. Lankide bat talde barik geratu da; talde

txikia omen zen (ordu bat gutxiago bere lanaldian, ikasturte erdian). Ea niri berdin gertatzen ez zaidan. Lepoko mina dut eta medikuarenera joan beharko nuke, baina ez dut horretarako ordurik, gure lan-hitzarmenean jasota ez dagoelako. Lankide bati beste mesede bat eskatu beharko diot... medikuarenera joateko... Zorionez, lan-giro hurbila eta osasuntsua dugu.

Horrela bost urte daroztat eta nekatuta nago. Joan-etorrietan egiten ditudan kilometroen dirua ez dut ikusiko, ezta saioak prestatzeko ematen ditudan orduen dirua ere (adibidez, spinning- eta zumba-saioak prestatzeko denbora luzea eskatzen du). Ezta azken orduko ordezkapenen aparteko ordainsaririk ere. Lan honek ito egiten nau.

Zoritxarrez, prekarioa naizela neureganatu, onartu dut. Baita zain dudana etorkizun beltza ere. Hainbeste gustuko dudana lanean jarraitzea besterik ez dut. Kirol-arlo honetan profesionalen lanaldia oso bat galtzen ari da, eta asko beste alde batera begira daude.

Dagokionari: zaindu kirol-langileak. Gaur eta bihar, kirola borrokan!



Txorierriko bizikleta-pistako Erletxeta-Larrabetzu zatia, martxan

Bizkaiko Foru Alduandiak onartu du Txorierriko bizikleta-pistako Erletxeta eta Larrabetzu arteko zatia eraikitzeke proiektua. Tarteak 3,4 kilometroko luzera izango du eta bizikleta eta oinezkoentzako ibilbide baten bidez lotuko ditu Erletxetako eta Larrabetzuko industrialdeak, Artola auzotik igarota. Tarte Erletxeta eta Lutxana arteko adarraren baitan dago eta Txorierra eta Mungialdea lotuko dituen sarearen parte da. Ia 12 milioi euroko aurrekontua du eta, aurreikuspenaren arabera, 18 hilabete egingo da.

Noranzko biko bizikleta-pista izango da eta oinezkoentzako bidea ere egongo da. Sei metroko zabalera edukiko du: lau metro zabaleko bidea atonduko da txirrindularientzat, eta bi metro zabaleko bidea, oinezkoentzat. Bide biak ondo bereiziko

dira, eta trafikotik aldentu, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. Era berean, gune zabaletatik eta parkeetatik pasatuko da. Kirol-aisialdirako aukera da bizikleta-pista; hala ere, Bizkaiko Foru Alduandiak azaldu duenez, benetako alternatiba ere izatea nahi dute, herritarrek erabili dezaten Galdakao eta Larrabetzuko arteko joan-etorriak egiteko. Gainera, erraztu egingo du inguruko garraio publikora oinez jotzea.

Ibilbidea Txorierra eta Mungialdea arteko sarearen parte da. Sarearen ardatz nagusiak zeharkatuko ditu Bilbo, Etxebarri, Basauri, Galdakao, Amorebieta-Etxano, lurreta, Abadiño, Berriz eta Zaldibar; bigarren ardatz nagusiak lotuko ditu Erletxeta eta Lutxana; eta, azkenik, bigarren mailako ardatz bat Mungiaraino ailegatuko da.

Milioi bat euro baino gehiago, eskualdeen lehiakortasuna sustatzeko

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko sailak 1.010.000 euro bideratu du Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko Programara. Tokiko eta eskualdeko garapenerako agentziatarako programa da, eta Orekan Sakonduz estrategiaren finantzaketa-tresna. Helburua da agentziek inguruko industria-enpresen eta zerbitzu lotuen lehiakortasuna indartzeko sustapen ekonomikoko ekimenak gauzatzea. EGAZ Txorierra da Bizkaia Orekan Sakonduz estrategiaren parte diren 23 agentziatarako bat.

Deialdira proiektuak aurkezteko epea apirilaren 8tik maiatzaren 8ra egongo da zabalik. Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko Programak jardueramota bi babesten ditu: alde batetik, industria arloan ekonomia berpizteko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburua duten jarduerak, eta horretarako, berrikuntza, nazioartekotzea eta ekintzaitelza aurreratua sustatzen dituztenak; eta bestetik, sustapen ekonomikoari lotutako gaitasunak indartzeko, agentziek eurek egiten dituzten proiektuak, batez ere gobernantzako ereduak eta eskualdeko plan estrategikoak garatzen dituztenak.

aikor!
txorierriko aldizkaria

Iragarkia gurean ipintzeko:
688 782 642
publi@aikor.com

**Zure lekua
hemen!**

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Vanesa Gil da apirileko irabazlea eta Baseri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Gorantzaileak dantza-taldeak Jaéneko Santa Anaren erromerian hartuko du parte

Hijos de Jaén elkartearen eskutik, Gorantzaileak Sondikako dantza-taldea Jaénera joango da maiatzaren lehen asteburuan. Txorierriko dantzariak Torredelcampo herriko Miguelico muinoan egiten den erromeria tradizionalen hartuko dute parte. Erromeria hori Santa Anaren omenez egiten da. "Probintziako erromeriarik zalapartatsu, dibertigarri eta jendetsuenetako bat da eta Interes Turistiko Nazionalako Festa izendatu dute", azaldu dute.

Ospakizunak maiatzaren 3an, barikuz, hasiko dira. Miguelico muinoan gaualdia egingo da. "Erromes asko joaten dira ber-

tara, gaua erromeria-giroan pasatzera". Hurrengo egunean, Gorantzaileak dantza-taldeko dantzariak dantza egingo dute erromesentzat, eta arratsaldean beste saio bat egingo dute, pregoian eta eukaristian parte hartuko dute eta. Domekan, erromeroak ermitaraino joaten dira eta meza eta prozesioa izaten dira. Ama Birjinaren imajina muinetik ateratzen dute. Prozesioa gelditzen denean, Sondikako dantzariak Agurra dantzatuko diote Santa Anaren imajinari. "Euskal kultura eta ohiturak eramango ditugu Jaéneko Torredelcampora". Bizkaiko Foru Aldundiak eta Sondikako Udalak babestutako ekintza da.

LOIUKO GAZTE EGUNA

12:00etan SORMEN TAILERRA Maiatzak 4
13:30etan TRIKI-POTEA
15:00etan GAZTE BAZKARIA
17:30etan SAKATU ELEKTROTARANGA
23:00etan KONZERTUAK

Maiatzaren 4an izango da Loiuko Gazte Eguna

Loiuko Bakarrak gazte-elkarteak antolatuta, maiatzaren 4an ospatuko da Gazte Eguna Loiun. Aurreko edizioetan moduan, egun osoko egitaraua prestatu dute herriko zein inguruko gazteek ederto pasatu dezaten. Eguna hasteko, sormen-tailerra egingo dute 12:00etatik aurrera, eta 13:30ean triki-poteoa egongo da. Gazteen bazkaria 15:00etan izango da, eta bertan parte hartzeko, 686 256 854 telefono-zenbakira idatzi behar da. Menu beganoa nahi bada edo intolerantziarik izanez gero, hori ere zehaztu behar da. Sakatu elektrotaranga Loiuko bazterrak girotuko ditu arratsaldean, eta kontzertuak 23:00etan hasiko dira: Nazka, Steady Rockets eta Amooma.

Trail-proba izango da maiatzaren 12an Loiun

Loiuko Udalak 500 Trail kirol-proba antolatu du lehen aldiz, maiatzaren 12rako. Proba 12 km-ko zirkuitu batean egingo da, eta parte-hartzaileek hura korrika zein oinez egin ahalko dute. Korrikalariak 09:30ean irtengo dira, eta ibiltariak, 09:40an; lehenek bi ordu eta erdi izango dituzte zirkuitoa egiteko, eta bigarrenak, hiru ordu eta erdi. Gainera, 09:45ean, bost km-ko txiki-martxa ere egongo da familiarientzat.

Izena ematea uno.es eta rockthesport.com webguneetan egin daiteke. Izena ema-

teak 10 euro balio ditu maiatzaren 7ra arte, eta 15 euro, maiatzaren 8tik 10era arte; nolahi ere, doakoa izango da izena ematen duten lehen 100 loiuhtarrentzat. Txiki-martxari dagokionez, izena emateak zazpi euro balio ditu maiatzaren 7ra arte, eta 10 euro, maiatzaren 8tik aurrera. Dorsalak eta txipak maiatzaren 12an bertan jaso ahalko dira, 09:10ak arte. Irteera eta helmuga Abadetxe kalean ipiniko dira. Korrika-modalitatea lehiakorra izango da eta lehen 10ek oparia jasoko dute. Informazio gehiagorako, jo aipatutako webgunetara.



Larrondo motozalez bete zen apirilean

Txoribikers Loiuuko motozaleen elkarteak antolatuta, motozaleen topaketa izan zen apirilaren 20an, Larrondon. Hitzorduan 500 moto inguru batu ziren, eta antolatzaileak oso pozik azaldu dira ekintzak izan duen erantzunarekin. Azaldu dutenez, antolatutako ekitaldi guztiak ondo irten ziren eta moto-ibilbidean 200 moto inguruk hartu zuten parte.

Loiuuko motozaleen topaketa aldaketa

inportantearekin etorri da aurten, lekuz aldatu dute eta. "Partxean herriaren izena duen Bizkaiko elkarte bakarra gara, eta nahi genuen topaketa herriko beste auzo batera zabaltzea. Jende gehienak gustura hartu du kokaleku-aldaketa, eta oso pozik gaude jasotako erantzunarekin". Moto ibilbideaz gainera, paella-jana, jokoak, drift erakustaldia, oparien zozketa eta kontzertua egin ziren.

Sondikako osasun-zentroa handitzeko lanak 2025ean hasiko dira

Sondikako osasun-zentroa handitzeko proiektuaren idazketa udaberriari lizitatzeari aurreikusitako Osakidetza, eta, aurreikuspenen arabera, lanak datorren urtean hasiko dira. Lanetan ia 4 milioi euro ipiniko dituzte, eta haiei esker anbulatorioko laguntza emateko eremua eta gainerako zerbitzuak emateko gunea handituko dira.

Azaldu dutenez, Sondikako Udalak 1.100 metro koadro inguruko lursaila utzi dio Osakidetzari, handitze-lanak egin ditzaten. Horiek amaituta, osasun-zentroak 1.800 metro koadro eraiki izango ditu eta bertan hauek atonduko dira: harre-

ra-gunea, 12 gela mediku- eta erizaintza-kontsultarako, lau gela pediatriarako, emaginaren kontsulta, fisioterapia-gela, gimnasio bat, bularra emateko gela, larrialdi-gela eta balio anitzeko kontsulta bi, besteak beste, odola ateratzeko eta proba osagarriak egiteko. Langileentzako eremua ere egongo da: egongela, aldagelak, biltegia eta instalazio-gela.

Jakinarazi dutenaren arabera, osasun-zentroa 1993. urtean inauguratu zen, eta handik hona % 33 handitu da herritarren kopurua: 4.506 biztanle daude, hain zuzen. "Errealitate horri aurre egiteko, Osakidetza osasun-zentroa handituko du".



Maiatzean Oilagorrari buruzko Nazioarteko Hitzaldia egingo da Derion

Ekitaldia maiatzaren 17tik 19ra izango da Hotel Seminarioan, eta bertan nazioarteko adituak batuko dira espeziearen kudeaketari lotutako alderdi nagusiak jorratzeko, hala nola datuak biltzea, ugalketa, migrazioa eta populazioa. Oilagorren Ehiztarien Elkarteak 25 urte bete ditu aurten, eta nazioarteko hitzaldia urteurrena ospatzeko egingo dituzten ekintzen baitan dago. Elkarteak 1.200 bazkide ditu gaur egun, 14 autonomia-ordezkaritza eta hiru probintzia-ordezkaritza Euskadin. Azaldu dutenez, euren helburua da oilagorra modu jasangarrian ehizatzea, eta horretarako, konpromiso aktiboa dute espeziearen kontserbazioarekiko eta bere inguruarekiko. Hori dela eta, hainbat proiektu sustatu dituzte eta Europako egitasmoetan ere hartzen dute parte; esaterako, hegaztiei eraztuna ipintzeko taldean edo errolda-taldean.

Dirulaguntza Lezaman: putzu septikoak

Lezamako Udalak dirulaguntza emango du putzu septikoak edo antzeko araztegiak garbitzeko dakartzan gastuak ordaintzen laguntzeko. Zehatz-mehatz garbiketa-kostuaren % 50 ordaintzeko dirulaguntza eman go da, eta putzu septiko bakoitza bi urterik behin lagunduko da diruz. Eskerak maiatzaren 2tik 31ra arte aurkeztu ahaliko dira. Lezamako Udalak 2.500 euro zuzenduko ditu dirulaguntza honetara. Informazio gehiagorako, udaletxera edo lezama.eus webgunera jo daiteke.



Txorierriko kiroldegia erabiltzen dituzten lezamarrentzako dirulaguntza

Lezaman ez dago udal-kiroldegirik eta, horregatik, Txorierriko gainerako herrietako udal-kiroldegietara joaten dira hainbat herritar. Udalerrri horietan erroldatuta ez daudenez, lezamarrek tarifa garestiagoak ordaindu behar dituzte. Lezamako Udalak deialdia zabaldu du herritarrei aldea ordaintzen laguntzeko, eta eskaerak maiatzaren 2tik 31ra arte aurkeztu beharko dira udaletxean. Udalak 8.000 euro zuzenduko ditu dirulaguntza honetara.

Eskaera 2023an Txorierriko beste herri bateko kiroldegia erabili duten lezamarrek aurkeztu dezakete. Baldintzei dago-

kienez, Lezaman erroldatuta egon behar dute eskaera egiten duten momentuan zein dirulaguntzaren xede den ekitaldian. Hala ere, interesduna Lezaman urte osoan erroldatuta egon ez bada, zati proportzionala jasoko du. Pertsona bat hainbat kiroldegitako erabiltzailea bada, dirulaguntza bakarra jaso ahalko du eta zenbateko handiena hartuko da kontuan.

Eskaerak aurkezteko eredu ofiziala udaletxean bertan hartu ahalko da, eta harekin batera hauek aurkeztu beharko dira: eskatzailearen edo haren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia konpultsatua; eskabidea aurkezten den

egunean, Udal Ogasun, Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta dituela azaltzen duen ardurapeko adierazpena; hirugarren alta-inprimakia (udalak emanda) behar bezala beteta, edo jada aurkeztu dela adierazten duen beren-beregiko aipamena; kiroldegiaren ordainagiria; errolda-ziurtagiria; eta familia-liburuaren fotokopia, familia-abonamenduen kasuan. Epea amaituta, akatsak jakinarazi, eta bost egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea gehienez hiru hilabetekoa izango da.

Lezama Bizirik ipinitako salaketa artxibatu du epaitegiak



Lezama Bizirik elkarteak salaketa ipini zuen iaz Bilboko Goardiako Epaitegian, Gangurenako onura publikoko 6. mendian "baso-jarduera suntsitzaileak" egin zirela argudiatuta. Elkarteak jakinarazi duenez, Epaitegiak auzia behin-behinean artxibatu du, Fiskaltzaren eskariz.

Autoan jaso den moduan, elkarteak salaketa ipini zuen aipatutako mendian basogintza-enpresa batek egindako lanek eragindako delitu ekologiko posible batengatik. Lezamako Udalak basogintza-enpresari eman zion pinuak eta eukaliptoak mozteko aprobetxamendua, eta elkartearen esanetan, lanen ondorioz beste espezie batzuk suntsitu ziren, hala nola gartzainondoak eta haritzak, landa-

re-errezela ere kaltetu zen eta hondakin asko errearen ibilguan utzi ziren. Epaitegiak, berriz, salaketa behin-behinean artxibatzea erabaki du, "gunea ez dagoelako bereziki babestuta, eta jasotako dokumentazioaren arabera, basoko florako babestutako espezie ez dutelako kalterik jaso, edo ez behintzat espeziearen kontserbazioari ondorioak ekartzen dizkion ale-kopuruan". Hortaz, ez du beharrezkotzat jo arlo penalean ikerketarekin jarraitzea. "Beste behin ere suntsitutako baso batekin geratzen gara, birrindutako mendi batekin eta zabortege bihurtutako erreka batekin. Beste aldean, negozioa geratzen da baso-enpresa batentzat, eta zigorgabetasuna, erantzuleentzat", adierazi dute.



a: Beste Bira

Beste Bira Loiu, bosgarrena Euskadiko Kluben Txapelketan

Apirilaren 20an, Euskadiko Bigarren Mailako Kluben Txapelketa izan zen Mendizorroztako pistan, Gasteizen, eta Beste Bira Loiu bere emaitzarik onena lortu zuen bertan: bosgarren postua. Izan ere, azaldu dutenez, iaz zazpigarrenak izan ziren txapelketa horretan. Txorierriko klubak Sendoa eta Barrutia taldeak gainditu zituen azken sailkapenean.

Beste Birako atletak banakako 17 probatan lehiatu ziren, eta bi errelebo-probatan. "Bosgarren postuan egoteko 57 puntu egiteaz gainera, positiboena izan da talde absolutuan gazteak sartu direla. Horri esker, taldeak aurrera egin du eta

sailkapenean postu hobea lortu duten taldeekin ibili dira, hala nola La Blanca, Artunduaga, Eibar eta Txindoki". Klubaren hurrengo helburua da Bizkaiko taldeen txapelketa, ekainaren 8an egingo dena.

Beste aldetik, egun horretan ere Aratz Mendieta eta Maialen Aketxe klubeko atleta gazteek Bizkaiko txapelketaren finalean hartu zuten parte benjamin kategorian. Probak Basaurin egin ziren. Mendieta luzera-jauzi proban eta abiadura proban ibili zen eta biak irabazi zuen: 3,70 metro eta 9.30 s, hurrenez hurren. Aketxe 60 metroko eta 1.000 metroko lasterketan ibili zen, eta azken proban hamabigarrena izan zen.

Loiuk 400.000 euroren truke erosi du Landatxueta kluba

Josu Andoni Begoña Loiuko alkatetik jakinarazi duenez, udalak Landatxueta kluba erosi du eta horren truke 400.000 euro ordaindu ditu. Azpiegitura enbargatuta zegoen eta irteera-prezioa 2,3 milioi eurokoa zen; hala ere, udalak askoz gutxiago ordaindu du, % 82 gutxiago hain zuzen. Guneak 30.000 metro koadro ditu, eta udalak espero du bertan zenbait kirol-egitasmo martxan ipintzea; lehena udal-igerilekuak egitea izango da.



Auzolanera deitu dute Larrabetzun

Larrabetzun Panpa-lezkarik Ez elkar-teak auzolanera deitu du maiatzaren 12rako. Jakinarazi dutenez, Sasine industrialdean bakarrik dago orube bat panpa-lezka duena, eta hori garbituz gero, Larrabetzun panpa-lezkarik gabeko lau gune egongo lirateke. Beraz, auzolanak bertatik landare inbaditzaileak kentzea du helburu. Hitzordua 10:30ean ipini dute industrialdeko gasolindegia- ren ondoko aparkalekuan.

Danbor-banda feministaren tailerrak Lezaman

Silvia Palumbo Argentinako kantautoreak eta aktibista feministak zuzenduta, maiatzean danbor-banda feministaren tailerra egingo da Lezaman. Guztira hiru saio izango dira: maiatzaren 7an, 21ean eta 28an. Saioak Uribarri Topalekuan egingo dira 17:30etik 20:00etara. Maila ertaineko tailerra izango da eta izena ematea berdintasuna@txorierri.eus helbide elektronikora idatzita egin daiteke, edo 688 654 649 telefono-zenbakira deituta. Lezamako Udalak, Moreak talde feministak eta Berdintasun Kontseiluak antolatutako ekintza da.

POLITEKNIKA TXORIERRI

HEGAN egiteko aukerak

Formación Profesional y Bachillerato

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa

Emaitza izena: politeknikatxorierri.eus

HETELID

EAJ Txorierrin ere izan da garaile; EH Bilduk boto-igoera nabarmena izan du



*Grafikoan Erandiogoikoko emaitzak ere hartu dira kontuan.

EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarre-rako hauteskundeak, baina eserlekuetan EH Bildurekin berdinduta: 27na eserleku lortu dituzte alderdi biek. EAJk 370.554 boto izan ditu Euskadin, 2020an baino 20.594 boto gehiago, baina lau eserleku galdu ditu. EH Bilduk, bestalde, 341.735 boto lortu ditu, aurreko hauteskundeetan baino 92.155 boto gehiago, eta sei eserleku irabazi ditu. Txorierrin ere EAJ izan da boto gehien eskuratu dituen alderdia: 5.304 boto, 2020an baino 176 boto gehiago. EH Bildu, bigarren alderdia izan da, 3.943 boto lortu ditu eta, aurreko hauteskundeetan baino 1.152 boto gehiago.

Eusko Legebiltzarrean eserlekua lortu duten gainerako alderdiei dagokienez, PSE-EEK 12 eserleku lortu ditu, 2 eserleku gehiago (149.660 boto, 2024an; eta 122.248 boto, 2020an); PPK zazpi eserleku lortu ditu, eserleku bat gehiago (97.149 boto, 2024an; 122.248 boto, 2020an); Sumarrek eserleku bat lortu du (35.092 boto); eta VOXek eutsi dio aurreko hauteskundeetan lortutako eserlekuari (21.396 boto, 2024an; 17.569 boto, 2020an). Aipatu beharra dago ezkerreko konfederalak oso emaitza txarrak izan dituela Euskadin, eta,

hortaz, Elkarrekin Podemosek galdu ditu aurreko hauteskundeetan eskuratutako eserlekuak eta ez du ordezkariarik izango Eusko Legebiltzarrean.

Alderdi horiek hurrengo emaitza hauek izan dituzte Txorierrin: PSE-EEK, 1.030 (852, 2020an); PPK, 636 boto (332, 2020an); Sumarrek, 312; eta VOXek, 144 boto (109, boto, 2020an).

EAJk 1.390 boto eskuratu ditu Derion (1.272 boto, 2020an); 388 boto, Larrabetzun (392, 2020an); 771 boto, Lezaman (776, 2020an); 749 boto, Loiu (753 boto, 2020an); 1.185 boto, Sondikan (1.131, 2020an); eta 821 boto, Zamudion (804, 2020an).

EH Bilduk 1.095 boto lortu ditu Derion, (689, 2020an); 697 boto, Larrabetzun (619, 2020an); 446 boto, Lezaman (339, 2020an); 287 boto, Loiu (179, 2020an); 776 boto, Sondikan (489, 2020an); eta 642 boto, Zamudion (475, 2020an).

PSE-EEK 545 boto izan ditu Derion (436, aurreko hauteskundeetan); 17 boto, Larrabetzun (14, aurreko hauteskundeetan); 74 boto, Lezaman (51, aurrekoetan); 65 boto, Loiu (55, aurrekoetan); 224 boto, Sondikan (186, aurrekoetan); eta

105 boto, Zamudion (110, aurrekoetan).

Beste aldetik, PPK 225 boto izan ditu Derion (109, 2020an); 17 boto, Larrabetzun (12, 2020an); 30 boto, Lezaman (14, 2020an); 123 boto, Loiu (61, 2020an); 177 boto, Sondikan (107, 2020an); eta 64 boto, Zamudion (29, 2020an). Sumarrek 145 boto eskuratu ditu Derion; 18 boto, Larrabetzun; 34 boto, Lezaman; 31 boto, Loiu; 51 boto, Sondikan; eta 33 boto, Zamudion. Azkenik, VOXek 56 boto lortu ditu Derion (45, 2020an); 8 boto, Larrabetzun (7, 2020an); 15 boto, Lezaman (6, 2020an); 17 boto, Loiu (26, 2020an); 34 boto, Sondikan (17, 2020an); eta 14 boto, Zamudion (8, 2020an).

Erandiogoikoa

Erandiogoikoko datuei dagokienez, EAJk 835 boto eskuratu ditu bertan (820 boto, aurreko hauteskundeetan); EH Bilduk, 588 boto (417 boto, aurrekoetan); PSE-EEK, 127 boto (105, aurrekoetan); PPK, 79 boto (51, aurrekoetan); Sumarrek, 43 boto; eta VOXek, 31 boto (19, aurreko hauteskundeetan). Datu horiek Erandioko hirugarren barrutiari dagozkio (Erandiogoikoa, Goierri, Arriaga, Enekuri, Lutxana eta Asua).

Txuma Olague abesbatzak kontzertu erraldoia antolatu du 35. urteurrena ospatzeko

TXUMA OLAGUE ABESBATZA

Hogeita hamabost urte bete dira Txuma Olague abadeak Sondikako abesbatza martxan ipini zuenetik, eta kideek kontzertu erraldoia antolatu dute maiatzaren 24rako, abesbatzaren ibilbidea errepasatzeko. Kontzertua 20:00etan izango da San Joan Bautista elizan, eta abeslariak herriko hainbat elkarte eta musikari edukiko dituzte laguntzaile, emozioz eta esker onez beteta egongo den kontzertua egiteko.

t: Itxaso Marina

Txuma Olague abesbatzaren kideekin batera, San Joan elizan izango dira Txuma Olague talde korala, Ipar Elaiak txistu-taldea, Pentagrama soinu-elkartea, Gorantzaileak dantza-taldea, dantza libre eskolako dantzariak eta musikariak, hala nola piano-jotzailea, bateria-jotzailea, bi-bolin-jotzailea, zeharkako txirula-jotzailea eta yembé-jotzailea. Berrogeita hamar lagun baino gehiago batuko dira ikuskizunean, eta antolatzaileek ahaztezina eta hunkigarria izatea espero dute. Horrela, Julene Beaskoetxearen gidaritzapean eta aurreko lerroetan aipatutako laguntzaz, abestien bidez errepasoa egingo diete 35 urtean egindako ibilbideari.

Aurreikusi dutenez, kontzertuak bi ordu iraungo du. Doako ikuskizuna izango da eta nahi duen guztia hurbildu daiteke elizara. Kontzertua bi zatitan banatuko dute: lehenengo zatian abestuko dituzten kanten artean azpimarragarria da *Maitia nun zira* abestia, Txuma Olagueren omenez kantatuko dutena. Bigarren zatian, Paula Perez gaur egungo zuzendariarekin landutako kantak abestuko dituzte abesbatzaren zein talde koralararen kideek. Errepertorio-zabala prestatu dute, eta urteurrenaren ospakizun-ekitaldian entzungo diren abestien artean aipatzekoak dira *Can't help falling in love*, *Thula Sizwe*, *Nesum Dorma*, *Va Pensiero* eta *Zurekin Batera*. Gainera, *Agur jaunak* kantatuko dute abesbatzaren kide ohiak eta hil direnak gogora ekartzeko. Abeslariak jada hasi dira errepertorioko kantak entseatzeko eta maiatzaren gainerako parte-hartzaileekin



egingo dituzte entseguak.

Esan moduan, kontzertu hunkigarria izatea espero dute Txuma Olague abesbatzaren kideek; zirrarez beteta. Izan ere, Perezen batutapean egingo duten azken ekitaldia izango da, 22 urteren ostean abesbatza zein talde korala zuzentzeari utziko dio eta. "Emozio itzela izango da, pena... baina, era berean, pozgarria izango da, Paulak zein guk hainbat urteetan egindako lana kontzertu bakar batean aurkeztuko dugulako". Une zirraragarriak biziko dituzte, zalantza barik, eta baten batek adierazi du ez dakiela abesteko gauza izango den, kontzertuan pentsatze

hutsak negarra eragiten dio eta. Edozelan ere, sorpresak egongo dira batentzat baino gehiagorentzat.

Txuma Olague abesbatza 80eko hamarkadaren amaieran sortu zen, aisialdi arloan sondikohtarrei beste aukera bat eskaintzeko. Gaur egun, 25 abeslari daude bertan, batzuk hasiera-hasieratik, eta aurrera jarraitzeko gogotsu dabilta. Hala ere, bizigarria behar dutela adierazi dute, eta herritarrei deia egin diete abesbatzara hurbildu daitezkeen ikuskizunaz gozatzera. Entseguak eguaztenetan eta eguenetan egiten dituzte, 17:30etik aurrera, Sondikako Kultur Etxean.

“Edozein pertsona ijitok ni erreferentetzat hartu nazakeela pentsatzeak harrotu egiten nau”

VIOLETA PEREZ MANZANO | ZUZENBIDEAN GRADUATUA

Derioko gaztea da Euskal Herriko Unibertsitatean Zuzenbidean graduatu den ijito etniako lehen emakumea, eta horrek ikusmin handia sortu du bere inguruan zein komunikabideetan. Egoera pozik eta harrotasunez daroa.

t eta a: Itxaso Marina

Jakinmin handia sortu da zure inguruan. Zer deritzozu?

Oso balioetsita sentitu naiz. Hainbat komunikabide ipini dira nirekin harremanetan, eta estimatzen dut. Hala ere, nire kasutik haratago, uste dut pertsona ijitoek egiten ditugun gauza guztiak nabarmendu behar direla. Ulertzen dut nire kasuak eragina izan ahal duela eta gizar-teari lagundu ahal diola, baina ahotsa ere eman beharko litzaieke, esaterako, Ijito-herriaren Nazioarteko Egunari –apirilak 8–edo diskriminazioa jasotzen dutenei ere, baita babes handiagoa ere.

Diplomak emateko ekitaldian ijito-herriaren bandera jantzita ikusi zintugun. Harro?

Oso harro. Izan ere, edozein pertsona ijitok ni erreferentetzat hartu eta bere ametsa egia bihurtu daitekeela pentsatzeak harrotu egiten nau. Nik bizi izandakoak beste pertsona batentzat lagungarria bada, pozik.

Izan ere, askotan esan duzu ijito-herriaren erreferente falta dagoela.

Bai, horrela da. Nik, berriz, osaba Ramón izan dut erreferentetzat: unibertsitatera joan zen eta beti esaten nuen bera bezalakoa izan nahi nuela. Egia da karrera hasi nuenean emakume abokatu ijito batzuk ezagutzen nituela, baina ez ziren erreferente hurbilak. Hortaz, beste batzuek ni erreferente hurbil moduan ikusi ahal izateak harrotasunez betetzen nau.



Erantzukizun handia da?

Bai, apur bat, baina lasai nago, badakidala bide onetik noala.

Adierazi duzu hezkuntza-sistemak ez duela sustatzen pertsona ijitoek goi-mailako ikasketak egitea. Zelan bizi izan duzu hezkuntza-prozesua?

Pertsona ijito bakarra izan nintzen eskolan, eta horrek sentiarazi zidan besteak baino gutxiago nintzela, ez nintzela gai. Are gehiago, unibertsitateko lehenengo urtean karrera utzi nuen, nire lekua ez zela pentsatzen nuelako: oso leku handia zen eta nik ez nuen zerikusirik han zeudenekin... Niretzat gehiegi zela pentsatzen nuen. Gaur egun, bestalde, ijito gazteen elkarte batean eta emakume ijitoen beste elkarte batean egiten dut lan, eta ikusi dut eskola-segregazio handia dagoela. Gainera, gainerako ikasleekin alderatuta, itxaropen gutxi daude ikasle ijitoekiko, eta txikitatik barneratzen dugu gai ez garea. Unibertsitatera ailegatu ahal garenik ere ez da pentsatzen...

Zailagoa da emakumea izanik?

Bai, emakume ijitoek diskriminazio bikoitza jasaten dugu eta.

Zure familia erabakigarria izan zen karrera berrartzeko erabakia hartu zenuenean.

Familia oinarrizko zutabea izan da niretzat. Senideekin elkarrizketa luzeak izan nituen, eta horiek izan ezean, ez niokeen karrerari berriro ekingo. Egia esan, karrera utzi nuenean, guztiak tristatu ziren pilo bat, ze hasieran nik ilusio handia nuen, eta hainbat goibel ikusita, bada, haiek ere txarto pasatu zuten. Baina haien babesari esker erabaki nuen fakultatera itzultzea eta berriro saiatzea.

Zergatik ikasi duzu Zuzenbidea?

Batxilergoa hasi nuenean ez nuen argi zer egin. Gainera, irakasleetako batek karreraren alde txarrak aipatu zizkigun, eta alde batera utzi nuen. Baina gero, selektibitatearen nota jaso eta karreraren zerrenda birpasatu nuenean, argi izan nuen. Oso pozik nago hartutako erabakiarekin, eta karrera berriro aukeratu beharko banu, erabaki berbera hartuko nuke.

Giza eskubideak

Derioztarrak Romi Berriak ijito gazteen elkarteetan eta AMUGE emakume ijitoen elkarteetan lan egiten du gaur egun. Horrezaz gainera, Abokatutza eta Prokuradoretza Masterra egiten dabil, eta oraindik denbora du iluntzeetan taekwondoa egiteko. Aipatutako elkarteetan, doako aholkularitza legala ematen die erabiltzaileei. "Aholkularitza edozein arlotan ematen dugu, eta horrek eskatzen du zuzenbideko arlo guztietan egunean egotea. Hortaz, adituekin etengabeko harremanetan izan behar dut, orientatu nazaten eta esperientzia hartuz joateko. Batzuetan gogorra da, diskriminazio-egoera asko kontatzen dizkigutelako. Pertsona horiek aholkularitza ez ezik ulertuta sen-

titzea ere behar dute, eta, nire ustez, diskriminaziorik edo arrazakeriarik jaso ez duenak ez dituzte % 100ean ulertuko; polita da ikustea askotan pertsona «erreparatuta» sentitzen dela".

Bestalde, Chaladur programan hartzen du parte AMUGE elkartearen bidez, eta bitartekaritza-lanak egiten ditu ikasle ijitoen eta beren familien eta eskolaren artean. "Helburua da ikasle ijitoak motibatzea ikasten jarraitu dezaitez". Apirilean Europako Parlamentuan izan da, Patricia Caro Maya eurodiputatu ijitoak gonbidatuta, eta bertan Europako beste ijito batzuk ezagutzeko aukera izan du. "Horrek nire burua giza eskubideen arloan trebatzeko gogoia piztu dit".

LASARTE
HORTZ KLINIKA

Padi, Implanteak, Ortodontzia,
Hortz estetika, Peridontzia

📍 Alkartasuna kalea 5, Mungia

☎ 946 020 020 📱 @lasartehortzclinika



HORTZ KLINIKA



“Pelikula batek beste pelikula bat ekarriko dizu beti”

AITOR REMIREZ LOZA | VIDEOASSIST-A

Hogeita bederatzi urteko larrabetzuarrak azken urteetako pelikularik eta telesailik garrantzitsuenetako batzuetan hartu du parte. Bere lana ezinbestekoa da, zuzendariak eta grabazioak aztertzeke eta pantailan ikusten duguna egokia eta akatsik gabekoa izateko.

Zein da videoassist-aren lana?

Bideo-teknikaria naiz, edo bideo-laguntzailea. Filmazio batean, kamera grabazio-eremuan izaten da; eta telesailaren edo pelikularen zuzendaria eta departamenduetako zuzendariak eta laguntzaileak, combo esaten zaion eremuan. Zuzendariak eta departamenduetako arduradunek azkar-azkar ikusi behar dute kamerak zer grabatu duen, eta nire lana da kamerak grabatutakoa oso modu azkarrean hainbat monitoretara bidaltzea, egindako lana aztertu dezaten: aktoreek ondo egin duten, soinuarekin asmatu den...; berriazko ekipamendua erabiltzen da horretarako. Entseguak ere grabatzen ditut, akatsak zuzendu ahal izateko; edo eskatzen didaten grabazioaren sekuentzia bat ipintzeko, edo haren zati bat...

“Ez dut inoiz ahaztuko lanean ibili nintzen lehenengo pelikula: Igor Legarretaren Cuando dejes de quererme”

Hortaz, kamera-departamentuko lanpostua izan arren, harreman handia duzu gainerako departamentuekin.

Bai. Zuzendariak, esaterako, aktoreen mugimenduak ikusi nahi izaten ditu; arte-departamentukoak, atrezzoak ondo dagoen edo mugitu den; argazki-zuzendariak, argia egokia den; soinukoak, pertika hartaldian sartu den...



Nola ailegatu zinen ikus-entzunezko mundura?

Betidanik gustatu izan zait grabatzen ibiltzea: nahiko gaztetxo nintzela hasi nintzen skate egiten eta lagunok elkar grabatzen genuen zelan ibiltzen ginen ikusteko. Ikus-entzunezkoek atentzioa ematen zidatenez, erabaki nuen batxilergo amaituta goi-mailako ziklo bat egitea: ikus-entzunezko, ikuskizun eta ekitaldien ekoizpena; eta hori amaituta, beste goi-mailako ziklo bat: argiztapena eta irudia hartzea eta tratatzea.

Zein proiektu-motatan ibiltzen zara?

Iragarkiren bat grabatu arren, pelikuletan eta telesailetan ibiltzen naiz normalean. Esaterako, *El árbol de la sangre*, *El bus de la vida* eta *No puedo vivir sin tí* pelikuletan hartu dut parte, eta *La línea invisible*, *Madres* eta *Intimidad* telesailetan...

Baten bat berezia da zuretzat?

Bada, ez dut inoiz ahaztuko lanean ibili nintzen lehenengo pelikula: Igor Legarretaren *Cuando dejes de quererme*. Ekoizpen-bekadun ibili nintzen bertan, eta oso pelikula inportantea da niretzat, lan-ibilbidea hantxe hasi nuelako. Beste egitasmo inportante bat da *Antidisturbios* telesaila, horretan hasi bainintzen nire burua gaur egungo lanpostuan trebatzen. Gainera, oso egitasmo ikusgarria eta interesgarria izan zen, maila tekniko handikoa, eta oso gauza politak grabatu genituen.

Adibidez?

Sekuentzia batzuk hiruzpalau egunean entseatzeko ibili ginen, eta bosgarrenean grabatu genituen. Oso plano zailak izan ziren, figurante asko zeudelako, borrokak, piroteknia... Gainera, kamerak oso ibilbide luzeak egin behar zituen grabatzeko, eta kameralariak patinete elektriko baten antzeko ibilgailu batean ibili behar izan zuten denbora osoan. Halako lanetan aditua den enpresa bat kontratatu zen; bestela, ezinezkoa izango zen grabatzen ari zena denbora osoan ikustea.

“Pelikula bat filmatzeak zazpi aste iraun ohi du; 11 orduko lanaldia egiten da astelehenetik barikura”

Nola lortu duzu horietan parte hartzea?

Lan asko kontaktuen bidez lortzen da. Lehen pelikulan egin nituen kontaktuengatik ez balitz, ziur asko ez nintzateke gaur nagoen lekuan egongo. Esaten denez, pelikula batek beste pelikula bat ekarriko dizu beti, eta minimo batzuk eta lan-dinamika barneratzen baduzu eta lan egiteko gogotsu bazabiltza, lana izango duzu.

Beharrezkoa da etengabeko birziklapena?

Ekipo teknologikoak erabiltzen ditugu lanean, eta teknologia etengabe dabil be-

rritzen. Horregatik, garrantzitsua da nork bere kabuz trebakuntza-ikastaroak egitea.

Zeintzuk dira zure lanaren alde onak?

Bada, jende asko, hainbat lekutakoak, eza-gutzeko aukera dut, eta oporraldi txikiak izaten ditut proiektuen artean; hala ere, azken hori txarra ere izan daiteke, oporraldi luzeegiak bihurtzeko arriskua dago eta. Beste alde on bat da artisten erregimenean kotizatzen dugula: lan egindako egun bakoitzak balio apur bat handiagoa du eta, langabezia-saria kobratzeko, ez dugu hainbeste egun lan egin behar.

Eta txarrak?

Filmatzeak oso trinkoak direla, esaterako. Salbuespenak salbuespen, pelikula bat filmatzeak zazpi aste iraun ohi du, eta astelehenetik barikura, eta batzuetan zapa-tuetan ere, 11 orduko lanaldia egiten da. Hortaz, denbora gutxi dugu aisialdirako. Gainera, ordu asko ematen ditugu pertsona berberekin eta lehen egunean jatorra dena bigarren egunean ez da hain jator, beharbada (kar-kar). Eta soldata, beti nahi dugu apur bat gehiago.

Zeintzuk dira zure lan-helburuak?


Nahiz eta batzuetan gogorra izan, oso pozik nago *videoassist* moduan lanean. Lehen esan dudanez, askotan izaten naiz pelikula edo telesailen sormen-departamentuetako langileen ondoan, eta hori asko gustatzen zait, lana zelan egiten duten ikusten dudalako; oso aberasgarria da niretzat.



Ogitartekoak 94 455 42 15
Anoak Garaioitza, 74
Plater konbinatuak 48196 Lezama



Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com



SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Centro Dental
Txorierri
Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759
Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337
Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462
Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885
www.cdtxorierri.es
ORTODONCIA21

Burdinolak

t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Gizakiak aspalditik, Burdin Arotik hona, daki harkaitz berezi batzuetatik burdina lortu daitekeela. Horretarako behar ziren burdin mea, sua, haizea eta... besoen indarra. Hasiera batean, basoan bertan egiten zen, haizeolak erabiliz. Aditu batzuen ustez, gure basoetan dauden karea lortzeko karobi asko burdina lortzeko erabiltzen ziren beste garai batean.

XIV. mendean ikasi zuten erreketako uraren indarra erabiltzen. Ur-jauziei esker, haizea hauspoen bidez kontrolatu zite-

keen; eta besoen indarraren orde z gabia, mailu handia, erabili. Orduko "industria" nagusia ibaiertzetara jaitsi zen, eta, jauntxoan menpean, burdinolak sortuz joan ziren han eta hemen. Inguruan hainbat langile mugitzen ziren: minerala lortu eta garraiatzeko, egur-ikatz basoan egin eta garraiatzeko, eta jakina, olagizonak. Egitura aprobetxatuta, burdinola gehienetan gari- eta arto-errotaren bat ere atxikita zegoen. Burdin mearen leku berezia da Bizkaia, eta garai batean Europan oso preziatua zen hemen lortutako burdina. Txorierriko erreketan ere hainbat burdinola sortu ziren; baserrien toponimia

begiratzea besterik ez dago: Ola, Olaetxe, Olaoste, Olabarri, Olabide, Goikolea...

XIX. mendean, koke-ikatzarekin batera labe garaiak etorri ziren, eta erreka inguruko burdinolak desagertuz joan ziren pixkanaka-pixkanaka, edo errota bihurtuz. Batzuk museoak dira gaur egun, eta bisitatu daitezke: Bizkaian, El Pobal (Musikiz); Gipuzkoan, Agorregi (Aia), Mirandaoia (Legazpi) eta Igartza; eta Nafarroan, Orbaizeta eta Eugikoa, itzelak direnak. Dena den, erreka bazterretan oraindik hainbat topa ditzakegu, garai bateko arrastoak besterik ez badira ere.



El Pobaleko burdinola



Ibilbide proposamena

Muskizko El Pobal burdinolako aparkalekuan hasiko dugu ibilbidea. Bide bazterretik joango gara; beraz, kontuz ibili beharko dugu. Berrehun eta berrogeita hamar metro egin ostean, mendirantz doan lurrezko pista ikusiko dugu beste aldean. Hura hartuko dugu eta Montellano auzora doan bidera irtingo gara; Galdamesko lurretan izango gara orain. Bertara helduta, eliza, Antonio Trueba jaiotetxea

eta bailarako bista ederra duen balkoia bisitatuko ditugu. Auzoko azken etxeak igaro, eta ezkerretara jaisten den pista hartuko dugu; urtegi eder baten ondotik, berriro aterako gara errepide nagusira.

Barbadun ibaia gurutzatu ostean, ezkerretara egingo dugu. Laster, urkanal bat eta antapara bat ikusiko ditugu, Valdibia errota iragartzen dutenak. Aurrerantz, ibai ondotik, oso paseo po-

lita dago La Olla olako arrastoetaraino. Orain, mendirantz egiten du bidezidorrak, eta baso-lanek eragindako kalte-eraketatik kostatzen da El Pobalera doan bidexkari jarraitzea. Zubi eder batetik erreka gurutzatuko dugu eta burdinolara helduko gara, 10 kilometro inguru egin ostean.

Eta jakina, behin hemen egonda burdinola bisitatuko dugu, merezi du eta; zapatuetan martxan jartzen dute.



La Olla (Galdames)



Bolunburu (Zalla)

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Birikalko Txakolina
Herriko txakolina

Berke-ko Txakolina

Goitoltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

TABERNA GAZTEDEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Arebalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

TURREGOITI JAIETXEA

Laurgoita etorbidea, 27
48160 Lajiu-Bizkaia
T-Faxoa: 94 453 24 40
restauranteaumegaiti.com

KAISHOP! Asko balio du! kanpaina martxan Txorierrin

Txorierriko Mankomunitateak, Bizkaiko zenbait udalerrirekin batera eta Alkarbiderekin elkarlanean, "KAISHOP! Asko balio du!" kanpaina jarri du martxan, herrietako merkataritza, ostalaritza eta euskara batuz.

Txorierrin ez ezik, kanpaina Getxo eta Gernika-Lumoko udalerrietan ere jarriko da abian, euskarri digital eta fisikoak erabiliz.

Maiatzaren 3an hasi eta 10ean bukatuko den kanpaina honen bidez, bi ideia nagusi azpimarratu nahi dira:

Tokian tokiko merkataritzak eta ostalaritzak ematen diguten tratu pertsonal eta gertukoa. Izan ere, kalitatezko produktuak gertu eskuratzeko aukera ematen du, gure beharretara berehala egokitzen den zerbitzu bati esker.

Euskarak tokian tokiko merkataritza eta ostalaritzan duen garrantzia. Euskara guztiona da, jantzia, osoa, aberatsa, gertukoa, kalitatezkoa: **asko balio du zu euskaraz entzuteak.**

Idea biak uztartuz, kanpainaren hartzaile izango diren Txorierriko herritarrei gonbidapena luzatuko diegu herrian eta euskaraz erosi dezaten. Horretarako, maiatzaren 3tik 10era, sare sozialetan kanpainaren eduki digital ezberdinak zabalduko ditugu.

Kaishop!, Txorierriko Mankomunitateak saltokiei urte osoan zehar eskaintzen dien "Euskararen Lagunak" egitasmoaren ba-



rruan kokatzen da. 120 establezimendu baino gehiago dituen sarea da, eskualdeko saltokietan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea bilatzen duena. Txorierriko "Euskararen Lagunak" zeintzuk diren jakin nahi baduzu, hauxe da maparen esteka: <https://www.tganet.net/beo/mapaeustxorierr/>

Kaishop! kanpainako **kartela** sareko kide diren sei merkataritza eta ostalariren argazkiekin osatu da, Txorierriko herri bakoitzeko bat:

Loiu: Biar Landa, Sondika: Esther fruta denda, Derio: Bizkargi taberna, Zamudio: Crazy Guitar taberna, Lezama: Aitziber ile-apaindegia eta Larrabetzu: Koloretako barazkiak.

Horretaz gain, kanpainaren zabalkundearako, inkestazaila batzuk **kalea girotzen** eta opariak banatzen arituko dira bi barietate arratsaldetan: maiatzaren 3an (Derio, Loiu eta Sondikan) eta maiatzaren 10ean (Zamudio, Lezama eta Larrabetzun).

Galderak erantzuten dituzten herritarrek opariak jaso ahal izango dituzte zuzenean

eta gainera, kanpainarekin bat egin duten ondorengo dendek eta tabernekin eman dako sariak ere lortzeko aukera izango dute zozketa baten bidez:

Biar Landa (Loiu) :
Lore sorta bat

Esther fruta denda (Sondika):
20 euroko bonu bat

Zainduz Hartz Klinika (Derio):
Aho-hortzen higienarako produktu sorta bat

Josune janari denda (Lezama):
2 gazta tarta

Oxangoiti Kultur Elkartea
(Lezama): Gosari bat

Kanpainari buruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, euskera@txorierrri.eus helbidera idatzi dezakezu edo 944540350 telefonora deitu.

#Kaishop
#erosieuskaraz
#erosiherrian

ZURE OSASUN ZENTROAN ERRETZEARI UZTEN LAGUNDUKO DIZUGU





Eman diezaiegun bigarren bizitza

Txorierriko kaleetan zehar edukiontzi zu-riak ikusi ahal dira, baina ba al dakigu be-
netan zertarako balio duten? Edukiontzi
horien helburua hondakinen zerrenda
murriztea eta materialen bizitza erabil-
garria luzatzea da, bai eta edukiontzian
utzitako produktuen berrerabilera sustat-
zea ere. Hori dela eta *berrerabilpen-edu-
kiontziak* ere esaten zaie.

Horretarako, garrantzitsua da hondakin
bakoitza dagokion edukiontzira botatzea.
Hortaz, zer bota dezakegu edukiontzi zu-
rira?

- Arropa.
- Zapatak eta osagarriak.
- Jostailuak.
- Liburuak.
- Mugikorak, tabletak eta bestelako gai-
lu elektroniko txikiak.
- Etxetresna elektriko txikiak (plantxa, ira-
biagailua, ...).

Baina oso garrantzitsua da argi izatea zer
ez dugun bota behar:

- Hondakin arriskutsuak -> Garbigunera
- Lozaz egindako objektuak (platerak,
katiluak...) -> Garbigunera
- Beirazko objektuak -> Edukiontzi
berdera
- Objektu zorrotzak -> Garbigunera
- Etxetresna elektriko handiak -> Honda-
kin handiak biltzeko udal zerbitzuetara
edo Garbigunera
- Botikak -> Farmaziako sigre puntuetara
- Janaria -> Gainerako hondakinak
biltzeko edukiontzi berdera edo mate-
ria organikoa biltzeko edukiontzira

Eta edukiontzi zurian utzitako produktue-
kin zer egiten da?

Astero husten dituzte Txorierriin dau-
den hamabi berrerabilpen-edukiontziak.
Egoera onean dauden produktuak biga-
rren eskuko Koopera Store dendetan es-

kuragarri jartzen dira, prezio merkeetan,
eta bertatik dohaintzak egiten dira gehien
behar dutenentzat. Gainerako gaiak be-
rerrerabili, birziklatu edo prozesatu egiten
dira.

Edukiontzi zuria ondo erabiltzeko gomen-
dioak:

- Handiak ez diren objektuak plastikozko
poltsa itxietan sartzea komeni da.
- Ez utzi ezer lurrean edo edukiontzitik
kanpo.
- Kontuan izan berrerabiltzeko produk-
tuak direla, beraz, ahal dela, egoera
onean edo onargarrian egon behar
dute.
- Produktuak edukiontziaren kaxoian
sartutakoan kaxoia ixten ez bada, ez be-
hartu. Harrapaketak saihestuko dituzu.
Kasu gehienetan ez da ixten dagoene-
ko beteta dagoelako.

Hemen dituzu Txorierriko edukiontzi zu-
rien kokalekuak: <https://www.txorierri.eus/eu-ES/Zerbitzuak/Hondakinak/Orriak/Textil.aspx>



Hain garbiak ez diren berbak

Badira euskaraz, beste hizkuntza
guztietan legez, batere garbi usainik
ez duten berbak. *Ugerdo*, esaterako.
Adiera zehatza izateaz gain, indar be-
rezia du berba horrek; zero kilome-
troko berbek daukaten indarra, hain
zuzen ere. Euskaltzaindiak ere jasotzen
du forma hori bere hiztegian, baita
uger izena ere, adiera birekin jaso ere:
1.-herdoila. 2.-zolda, kraka ('mugre').
Bestela esanda, burdina ugertu daite-
ke, eta nor edo nor luzaro egonez gero
dutxatik pasatu barik ugerra pilatuko
zaio.

Usain txarra adierazteko, mende-
baldean *sunda* berba erabiltzen da.
Arrain-sunda, izerdi-sunda... *Hatsa* eta
kiratsa bezain balekoak dira.

«Suciedad» esateko badirudi ber-
ba bakarra dugula euskaraz (*zikinke-
ria*), baina mendebaldean baditugu
bestelako berba «ederrak»: *lohia* eta
saskeleria. Pertsona narras eta arlotea-
ri kutsu peioratiboa duen adjektiboa
ematen zaio: *saskila* (*saskela/saskel-
doa*, mendebaldean).

Amaitzeko, sarritan nahasten diren
konzeptu bi: «residuo» eta «basura».
Bereizten al ditugu? Lehenengoa adie-
razteko *hondakina* edo *hondarra* ber-
bak erabili ohi ditugu (*janari-honda-
kinak*, *kafe-hondarrak*); bigarrenerako,
berriz, hitz hauek dira ezagunenak
gure artean: *sastarra*, *satsa*, *zakarra* eta
zaborra.

Gaur aipatu ditugun berbak ez dira
aratz, txukun eta dotoreenak izango,
baina, ez izan zalantzarik, eguneroko
bizimodurako besteak bezain beha-
rezkoak zaizkigu.

“Familia-esperientzia itzela izan da”

ESTARRONA-PEREZ DERIOKO FAMILIA

Berrogei urteren ostean, Athleticeko gizonen taldeak Koparen finala irabazi zuen Mallorcaren kontra, Sevillan, eta gabarrak berriro ere Ibaizabal ibaia zeharkatu zuen Getxotik Bilboraino. Egia bihurtutako ametsa izan da familia zuri-gorriarentzat, zeinak La Cartuja futbol-zelaiak eta inguruak hartzeaz gainera, itsasadarreko alde bietan dena eman baitzuen, jokalariekin batera garaipena ospatzeko. Zaleen artean txorierritar asko eta asko izan ziren, baina garaipen historikoa batez ere Estarrona-Perez Derioko familiarentzat izan da gozoa, suerteak nahi izan zuelako horren kideek une hunkigarria eta ahaztezina bizi izatea.

t: Itxaso Marina / a: Aner Mentxaka

Kaiet, Aisha, Sheila eta Iker dira Estarrona-Perez familiako kideak. Astroak kirol-denda ospetsu batek antolatutako zozketaren harira hasi ziren haien alde lerrotzekin. “Baloia futbol-zelaira zein umek sartu aukeratzeko zozketan hartu genuen parte. Gutuna idatzi behar genuen, eta bertan azaldu finalera nor eta zergatik eramango genukeen”, kontatu digu amak. “Baloia futbol-zelaira sartuko zuen umeak ezaugarri konkretu batzuk eduki behar zituen, eta Kaietek betetzen zituen; horregatik ipini nuen bere izena. Gutun horretan, gainera, azaldu nuen Sevillako bidaia eta hotela hartuta genituela eta bakarrik sarrerak falta zitzaizkigula. Apirilaren 2an nirekin ipini ziren harremanetan eta esan zidaten zozketa ez genuela irabazi, baina Kaiet jokalariekin batera sartuko zela futbol-zelaira, eta gurasoetako bantentzako sarrera ere izango genuela. Ezin nuen sinetsi! Negar batean deitu nion Ikerri, eta hasieran ez zidan sinesten; adarra jotzen nengilkiola pentsatzen zuen”. Derioztarrak lagunekin joan ziren Sevillara. Familiaren asmoa zen aita eta semea La Cartuja futbol-zelaira joatea eta amak eta alabak partida Athletic Hirian ikustea. Baina bizitza apetatsua da, eta Sheilak bihozkada izan zuen. “Senarrari esan nion haiekin batera joango ginela La Cartujaraino, futbol-zelaira sartzeko itxaropena nuen eta. Zoratuta nengoela esan zidan.

Baina, bueno, elkartzeko gunera ailegatu ginenean, umeen izenak esaten eta kredentzialak ematen hasi ziren. Baloia eramatekoa zen neskatoa ez zela joango entzun nuen, eta esan nien nahi izanez gero Aishak eraman ahal zuela. Irribarre egin zuten eta euren artean hizketan jarraitu zuten. Senarrak ere esan zien Aishak baloia poz-ozik eramango zuela, eta handik gutxira kredentziala ipini zioten lepoan. Ezin genuen sinetsi! Besarkada handi batez elkartu ginen, eta zirrara handiaren eraginez negarrez hasi ginen”. Alabari kredentziala ipintzeaz gainera, finala ikusteko sarrera bat eman zioten Sheilari, baina derioztarrak erakutsi zuen bihozkada izatetik harago bihotz onekoa

Sheila: “Senarrari esan nion haiekin batera joango ginela La Cartujaraino, futbol-zelaira sartzeko itxaropena nuelako”

ere badela. “Hamahiru urteko gaztetxo bat zegoen negarrez: neba futbol-zelaira sartzekoa zen, baina berak ez zuen sarrerarik. Antolatzaileek galdetu zidaten ea nire sarrera emateko prest nengoan,

eta baietz erantzun nien. Gustatuko zitzaidan futbol-zelaira sartzea, jakinal, baina umeak eta Iker futbol-zelaira sartzeko hutsarekin poz-ozik nengoan; berriro egingo nuke! Gainera, Ikerrek kontatu zidan seme-alabek zein beste neskak dena eman zutela; beraz, primeran!”. Sheilak telefono mugikorrean ikusi zituen seme-alabak futbol-zelaira sartzeko, Athletic Hirira itzultzen zebilela.

Telebistan nahiko trankil ikusi genuen arren, Aishak esan digu apur bat urduri ibili zela futbol-zelaira sartzekoan. “Baina sartu, eta lasaitu nintzen; baloia hartu, eta erdigunera eraman nuen”. Finala nebarekin eta aitarekin batera ikusi zuen. “Mallorcak gola sartu zuenean tristatu nintzen, pentsatzen nuelako galduko genuela, baina gero Athleticek gola sartu zuen... Eta penaltietan, poz-ozik. Partidan zehar oihuka ibili ginen, eta abesten”. Lagunek ez zuten espero Aisha futbol-zelaira sartzeko eta denetariko erreakzioak izan ziren. “Nire lagunik onena oihukatzen hasi zen, ‘Aisha da, Aisha da’, baina aitak esaten zion, ezetz, ni ez nintzela... Eskolan esan didate suerte handia izan dudala eta oso polita nengoela”. “Kontatu digutena araberak, pantaila erraldoiaren aurrean zeudenak txalotzen eta oihukatzen hasi ziren: Aisha da! Deriokoa!”, gehitu du amak. “Hainbeste mezu, bideo eta argazki jasotzen hasi nintzen, ezen telefono mugikorreko bateria agortu baitzitzaidan... Sevillan zeuden lagunek ere ez zuten sinesten... Itzela!”.



Opari ederra

Kaietek, bestalde, bere futbol-jokalaririk kutunenetako baten eskutik zapaldu zuen La Cartuja futbol-zelaia: Iñaki Williamsen eskutik, hain zuzen. "Sartu baino lehen galdetu zidan ea urduri nengoen eta nik baietz erantzun nion. Baina esan zidan lasai egoteko, irabaziko genuela". Aitak esan digunez, umeak esan zion Deriokoa zela eta Williamsen eskutik heldu zion, futbol-zelaira berarekin batera sartu zedin. "Antza, pisu bat alokatuta du bertan lagun batzuentzat". Kaietentzat, zalantzarik gabe, opari ederra izan zen, finala jokatu eta egun gutxira bederatzi urte bete

Kaiet: "Futbol-zelaira sartu baino lehen, Iñaki Williamsen esan zidan lasai egoteko, irabaziko genuen eta"

zituen eta. "Lagunek esan didate «mutur handia» dudala (kar-kar)". Finala seme-alabekin bizitzeko aukera izan zuen Iñakirekin, eta aipatu digu oso esperientzia hunkigarria eta zoragarria izan zela. "Pena izan zen Sheila gurekin egon ez izana". Hala

ere, aurreko lerroetan adierazi moduan, emaztea ez da erabakiaz damutzen. "Nik uste nuen halakoak ez zirela gertatzen. Apirilaren 1ean Sevillako bidaia eta ostua hartuta genuen, baina sarrerarik ez, eta apirilaren 6an seme-alabak La Cartujako futbol-zelaian genituen! Zer gehiago eskatu ahal genuen? Bada, falta genuen bakarra zen irabaztea eta irabazi genuen! Familia-espereintzia itzela izan da!". Derioztarrek karanbola biribila izan dute, zalantza barik. Oroigarri moduan 3Dko gabarra ekarri zuten Sevillatik, eta gabarraz familian gozatu zuten garaipena ospatzeko Athleticeko jokalariei egindako harrera erraldoian.



RADIO TAXI FEMADE Zure taxia, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09** 

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com



DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Zuri-gorriak

La Cartuja futbol-zelaia ez ezik Sevillako bazterrak ere zale zuri-gorritz bete ziren Koparen finalean, eta haien artean txorierritar asko izan ziren. Garaipen historikoaren momentuak irudi bihurtu, eta orrialdeetan ipini ditugu ikusgai. Gainera, aikor.eus webgunean irudi gehiago daude.





a: Olatz Urubxurtu



a: Eider eta bere familia

Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**



Txillida-lekura BISITA GIDATUA

NOIZ: maiatzaren 23an.
NORENTZAT: euskaltegiko ikasleek lehentasuna izanik ere, guztientzat zabalik plazak bete arte.
ZER ORDUTAN: 10:30ean.

Erdu geugaz eta egizu euskeraz!



Aurtengo sanisidroek derioztarren parte-hartze aktiboa dute helburu

San Isidro jaiak aldaketaz beteta etorriko dira; oso aldaketa potoloz, egia esan. Izan ere, Derioko Udalak eta jai-batzordeak deia zabaldu die herritarrei, guztien artean partaidetza handiagoko jaiak antolatzeko eta derioztar guztiengana heltzeko, euren adina eta gustuak zeintzuk diren ere. Derioztarrek gogoz erantzun dute eta lankidetzaren emaitza bikaina izan da: jaiak bi asteburu iraungo dute; 35 ekitaldi inguru egingo dira, haietako erdia inguru elkarteek antolatuta. Ia 30 elkarte hartu dute parte jaien antolakuntzan.

Saioa Torre Bilbao da Derioko Udalen hiritartasun-teknikaria. Azaldu duenez, San Isidro jai-batzordearekin elkarlanean, parte hartzeko foro batera deitu zieten herritarrei, udalaren eta jai-batzordearen irakurketatik haratago, jakiteko derioztarrek jaiari buruz zer pentsatzen zuten. "Jakin nahi genuen ea berrikuntzen baten beharizanik ikusten zuten, jaiak bereago egiteko. Azken batean, herriko jaiak dira eta nahi genuen herritar gehiagorengana iritsi eta haien parte-hartzea aldarrikatu. Baina ez parte-hartze pasiboa, aktiboa baizik, jaien diseinuan zein garenengan. Foroek oso erantzun ona izan zuten eta hainbat ekarpen jaso genituen: haietako batzuk izan dira guk aurreikusitakoak, baina beste batzuk berritzaileak izan dira, eta nahiko konstruktiboak".

Aniztasuna izango da aurtengo jaietako ikur nagusietako bat. "Musika arloan, esaterako, adin eta gustu ezberdinetako jendearengana ailegatzeko proposamenak egin dira". Beste ikur nagusi bat izango da elkarteen parte-hartzea. "Historikoki, elkarteek jaietan parte hartzeko ohitura izan dute. Hala ere, azken urteak nahiko gogorak izan dira zentzu askotan eta elkarteen borondatezko dinamikak eta



ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
horts klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar baten
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai itaguri Facebooken

partaidetzak behera egin du hainbat arrazoiengatik. Beharrezkotzat jo dugu herriko elkarten parte-hartzea areagotzea eta indartzea, eta horregatik egin da deialdia. Esan beharra dago jai-batzordeak egundoko lana egin duela eta elkarten ordezkariekin banan-banan eta aurrez aurre batu dela". Emaidza oparoa izan du ahaleginak, eta hainbeste proposamen egin diren, ezen ezin izan baitira asteburu bakar batean sartu. Hortaz, jaiak bi asteburu iraungo dute. "Lehen asteburuan elkarten ekintzak egingo dira, elkarteei ikusgarritasun handiagoa emateko eta gauza gehiago egin ahal izateko".

Bi asteburu

Horrela, maiatzaren 11n, zapatuan, frontenis-txapelketa izango da goizean, eta herri-azoka. "Azken horren helburua da elkarteak ikusaraztea, eta standak ipiniko dira horretarako. Elkarte askok hartuko dute parte: Emaus, Gure Señeak, Koxak, Marikobaso, AMPA txiki, Txakur Lagunak, Marratzen... Gainera, herriko eta inguruko artisauen lanak ere ikusgai jarriko dira azokan". Arratsaldean, kalejira dantzagarria egingo da Kukudantza, Piperdun eta Lainomendi elkarten eskutik. Domekan, bestalde, kirolari lotutako jarduerak izango dira. Ohikoa denez, Untza mendi-taldeak antolatuta, herri-ibilaldia egingo da goizean, eta parte-hartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran: luzeagoa, publiko orokorarentzat; eta laburragoa, familiarrentzat. Doyan klubeko taekwondolariek erakustaldia egingo dute, eta 11:00etatik 14:00etara kirol-festa egingo da. "Oso ekimen herrikoa izango da eta edonork hartu ahalko du parte, herritar guztientzako jolasak egingo dira eta. Ez da proba lehiakorrik izango, jostagarriak baizik; guztiok ondo pasatzeko modukoak". Eguna amaitzeko, euskal dantzak egingo dira Lainomendi taldeak antolatuta.

Maiatzaren 15a da San Isidro eguna. Aurten, eguaztena izango da, eta prota-

gonistak, umeak. Goizean, haientzako tailerrak eta jolasak egingo dira, baita Odol Argia elkarteak urtero antolatzen duen marrazki-lehiaketa arrakastatsua ere. Arratsaldean, jolas gehiago izango dira, eta marrazki-lehiaketaren sariak banatuko dira. Era berean, diskofesta egingo da lehen aldiz, festa apur bat gehiago luzatzeko asmoz.

Bigarren asteburuak aurreko urteetako eskemari jarraituko dio, berrikuntza bat baino gehiago egingo den arren. Barikuan, maiatzak 17, herri-kalejira izango da Gotx elektrotxararak girotuta. Ondoren, pregoia irakurri, eta txitxi-burruntzia egingo da. Agertokira hurrengo talde hauek igoko dira gauean: Striknina, Zopilotes Txirriaos, Aiaraldeko Sound System eta Dj Party. "Musika arloan ere ahalegina egin da, barikuan eta zapatuan eskaintza anitzagoa edo biziagoa izateko eta ahalik eta jende gehien erakartzeko. Betiko mo-

duan, herriko eta inguruko taldeak etorriko dira Deriora, baina kanpoko taldeak ere bai. Besteak beste, rantxerak entzungo dira, dub-a, rap-a, elektrolatinoa... Erromeria ere egingo da, eta modan dauden dj-ak".

Xaiborren diskofestak hasiera eman go die zapatuko ekintzei. Herri bazkaria egingo da, baina aurten beste formatu baten alde egin dute antolatzaileek: paella-txapelketa izango da. "Herri-bazkaria ahul ibili da azken urteetan, eta beste leku batzuetan ondo funtzionatzen duela ikusita, paella-txapelketa antolatzea erabaki da aurten. Nolanahi ere, lehengo aukerari ere eutsiko zaio, eta nahi duenak txartela erosi eta aulkiak eta mahaia hartu ahalko ditu, eta bere bazkaria eraman. Herritarrek modu aktiboago batean inplikatzeko modua da txapelketa". Izena ematea txosnagunean egin beharko da, eta datozen egunetan zehaztuko da nola egin. Bazkal-



**sarraila-denda
Txorierri**
ADITUAK BARRALAGINTZAN ETA SEGURASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@sarrailadenda.com
www.sarrailadenda.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lorja
48160 Derio

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

du ostean, Julen Axperen *Furgonologo* bakarrizketaz gozatzeko aukera egongo da, eta arratsaldean izango dira txitxarri-lloa, kuadrilen txapelketa-poteoa eta Ipar Alde abesbatzaren emanaldia. Gainera, musika-guneak atonduko dira herriko lau txokotan, eta kontzertua egingo dute Mero & Jonas Nonek, Matxinadak, Altza Porruk eta Dj Viktor Kordobak.

Jai-giroa kalean

“Jendearen beste aldarrikapen bat izan da txosnagunean eta tabernetan ez ezik kalean ere jai-giroa egotea; hau da, jaietan gaudela igartzea. Hori dela eta, elektrotxar-rangak girotutako jaitziera antolatu da bariku arratsalderako, eta gazte-talde batek prestatu du kuadrillen arteko txapelketa-poteoa zapaturako. Halaber, foroan oso proposamen zehatz eta egingarri bat egin zen, eta hori zapatu arratsaldean eramango dugu aurrera: herriko lau txokotan musika-gunea ipintzea. Zehatz-mehatz, Pakearen enparantzan, Urkiola aparkalekuan, Sollube kalean eta Gaztelumendi

plazan atonduko dira musika-guneak, eta haietako bakoitzean dj-batek estilo jakin bateko musika ipiniko du: 80ko eta 90eko hamarkadetako abestiak, euskal musika, rockabilly eta rhythm and blues, eta egungo musika”.

Domeka goizean, Elikagai eta Eskulangintza Azoka egingo da; azokaren 27. edizioa beteko da aurten. Azoka-gunean hainbat erakustoki ipiniko dira bertako produktuekin, eta ekintza-sorta zabala egongo da, hala nola herri-kirolak, taloa eta animazioa. Arratsaldean, dantza-erakustaldia egingo dute Kukudantza eta Piperdun elkarteek, eta nagusientzako antzerkia egongo da. Txokolatadaren ostean, jai-amaiera izango da traka eta guzti. “Jaien helburua da partaidetza ahalik eta modu aktiboenean areagotzea. Norbera modu batean edo bestean jaietan inplikatzeko denean, bere ingurua ere aktibatzen da, eta, ondorioz, uste dugu parte-hartzea modu naturalean areagotuko dela. Gainera, ilusioa kutsagarria da eta jaiak ilusio handiz antolatu ditugu. Espero

dugu jai dibertigarriagoak izatea, gauza on asko ateratzea eta ona ez denetik ikastea. Izan ere, hau ez da gauza puntual bat; bide berri baten hasiera da eta aurrera begira horrela jarraitu nahi dugu”.

Azken urteetan moduan, jai-gunea atonduko da kantxa estalien, kiroldegiaren, frontoiaren eta Kultur Birikaren inguruetan; hala ere, pregoia udaletxeko plazan botako da eta nagusientzako ekintzak Nagusien Etxearen inguruetan. Sexu-erasoei aurre egiteko protokoloa egongo da. “Aurreko urteetan, jai-batzordeak eta Koxak talde-feministak landu dute protokoloa, baina aurten udala ere badabil hori prestatzen. Protokoloa bateratuko da eta behar moduan jakinaraziko da”. Etxera bueltatzeko autobus-zerbitzua ere ipiniko da herritarren eskura, auzoz auzo eta doan, eta datozen egunetan ordutegien berri emango da. Azkenik aipatu beharra dago jai-batzordeak QR bat prestatu duela eta bertan programazioa zein gainerako zehetasunak eta estekak egongo direla eskuragarri.



 squattc

SQUAT
TRAINING CENTER

ENTRENAMENTSU PERTSONALA • LESIOAK • OPOSIZIOAK
ONLINEKO JARRAIPENA • KIROL ERRENDIMENDUA

Urkiola 4, Derio • squattrainingcenter.es • 686 917 409

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com



Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku



Zerbitzu Berrak
Logopedia
Podologia
Kirmasajak

clínica dental ZAINDUZ horts klinika

Txanem etorbidea, 9 - Lorja | Arriaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

DERIOKOA

MAIATZAK



ISIDRO DEUNA 2024 MAIATZAK 11-19



17 Barikua

- 18:30 Herri Kalejira
GOTX Elektrotzaranga
- 19:00 Pregola eta txitxiburduntzia
- 22:30 Kontzertuak **STRIKINA ZOPILDES TXIRRIAS AIARALDEKO SOUND SYSTEM DJ PORTY**

11 Zapatua

- 00:00 Frontenis txapelketa
- 11:00-15:00 Herri azoka
- 18:00 Kalejira **KUKUDANTZA, PIPERDUN, LAINOMENDI**

18 Zapatua

- 12:00 **XAIBOR** diskolesta Sollube kalean
- 12:00 Paella txapelketa
- 15:00 Herri Bazkaria
- 16:30 **JULEN AXPE - Furgonologo**
- 17:30 Paella Txapelketaren sari-banaketa
- 18:00 Txitxarrillo
- 19:00 Kuadrilla txapelketa-Poteoa
- 19:30 **IPAR-ALDE** abesbatza
- 19:30-21:30 **Musika-guneak herrian zehar.** Pakearen enparantza, Urkiola aparkalekua, Sollube kalea eta Gaztelumendi plaza
- 22:30 Kontzertuak

12 Domeka

- 08:00-09:00 **XXXVI. Herri ibilaldia**
- 10:00 **TAEKWONDO DOYAN** erakustaldia
- 11:00-14:00 Kirol jardunaldiak
- 18:00 Euskal dantzak **LAINOMENDI**rekin

MERO & JOAS HOWE MATXONADA
ALTXA PORRU ERROMERIA
DJ VIKTOR KORDOBA

15 Eguaztena

- 10:00-12:30 Haurrentzako **TAILERRAK**
- 12:00-13:00 / 17:00-18:00 Haurrentzako **JOLASAK**
- 12:30-13:30 **Marrazki lehiaketa**
- 17:00-20:00 **Disko festa**
- 18:00 **Marrazki lehiaketaren sari-banaketa**

19 Domeka

- 10:00-14:00 **XXVII. Elikagai eta esku-langintza Azoka**
- 18:00 **PIPERDUN** eta **KUKUDANTZA** dantza erakustaldia
- 18:00 **Antzerkia**
- 19:00 **Txokolatada**
- 20:00 **Jai amaiera**

LEKUA:

- Herriko plaza
 - Herriko estalkia - Tekonagunea
 - Kultur bulego
 - Pabiloi-eremua
 - Frontoia
 - Frontoi atzeko sarrera
 - Isidro Deuna Etxea
 - Nagusiari Etxea
- *Ez da onartzen erabiltzea frontoian edo bulego estalkian.

Derioko elkarte eta talde askoren elkarlanean



“Herri osoak disfrutatuko dauan programazinoa osotu da”

AINHIZE SAN ANDRES · Herritartasun eta Ingurumeneko zinegotzia

Pazko jaiak maiatzaren 20tik 27ra bitartean izango dira aurten Zamudion. Herritarren eta alkarteen laguntzari esker, herritar guzti-guztiek gozatzeko moduko jai-egitaraua prestatu da. Ainhize San Andres zinegotziak gakoak emon deuskuz.

Jaiak atzeratuko dira, zergaitik?

Pazko ospakizuna, izatez, maiatzaren 17ko asteburuan da, baina Derioko jaiakaz bat ez egiteko, hurrengo asteburuan ospatuko doguz. Halanda be, jaietako lehenengo jarduera, meza nagusia eta elizpean egiten dan ohiko luntxa, maiatzaren 20an izango da, Mendekoste astelehenean. Gainerako programazinoa, aste berean ospatuko dogu, maiatzaren 24ko asteburuan. Ohikoa dan lez, ospakizunak Adintsuen Etxean ospatuko dan karta txapelketagaz itxiko dira. Aurten, hitzordu hori maiatzaren 27an izango da.

Aurten deia egin jake herritarrei, jaien prestatze-lanetan parte hartu dagien. Zein izan da erantzuna?

Jaiak antolatzeko deia urtero herritarrei zein talde kulturaleri zabaldu izan jake, beti egon izan da zabalik. Orain arte, gehienbat, talde kulturelek hartu izan dabe parte. Hau dala eta, herritarrek be parte hartu dagien eurenganako deia zabaldu da. Asmoa eta helburua da herri osoak disfrutatuko dauan programazinoa osotzea, edade eta gustu guztietarako jarduerakaz, eta horretarako, hareen iritzia jaso gura izan doguz. Erantzun ona izan dogu, eta parte hartu daben herritar guztiei esker, eta



alkarteen laguntzagaz, proposamen bariak dakarguz. Herritarrek gogotsu parte hartzea espero dogu.

Nobedaderik egongo da?

Alde batetik, txupinaren ostean herrian zehar egingo dan kalejiran buruhandiak girotzen izango doguz, eta kalejira ostean berreskuratu dogun perretxiko dastaketa

solidarioari ekingo deusagu. Musikaren aldetik be, nobedadeak dagoz, edade guztietako publikoari zuzendutako aukerakaz. Holan, adinekoek maiatzaren 20an Palmeras taldearen eskutik dantza ugari egiteko parada izango dabe. Asteburuan murgilduta, barikuan, “Remember Fest” eta “Gazte-festa” izango dira; azkenengo horretan, Oihan Vega DJak animatuko



JAI-EGITARUA

Maiatzak 20, astelehena

11:00 **Mezea**, San Martin eleizan. Ondoren, kopaua.

18:00 **Dantzatzeko musikea** (Palmeras taldea), Adintsuen Etxean.

Maiatzak 24, barikua

11:00 **Umeentzako tailerrak**.

19:00 **Txupinazoa**, Sabino Arana plazan. Jarraian, **kalejire**a Bertokogaz, Gazte Elai txistu-taldeagaz eta buruhandiakaz.

20:30 **Perretxiko-banaketa solidarioa**, Arbolantxa kalean, Lagunandre alkarateagaz.

21:00 **Remember Fest**, Arbolantxa kalean.

21:00 **Gazte-festea**, Sabino Arana plazan: Oihan Vega.

23:30 Kontzertuak, Sabino Arana plazan: **Oxabi + Dj Latxirongak**.

Maiatzak 25, zapatua. Sukalki Eguna

09:00-10:00 **Tortilla- eta sukalki-txapelketetan izena emotea**, Bidekoetxe parkean.

11:30 Lagunandre alkaratearen **azoka solidarioa**, Bidekoetxe parkean.

11:30-13:30 **Egurrezko jolas mitologikoak**, Bidekoetxe parkean.

13:30 **Tortilla eta sukalki txapelketen sariak banatzea**.

16:00 **Kittu! Erromeria**, Bidekoetxe parkean.

16:00-19:00 **Egurrezko jolas mitologikoak**, Bidekoetxe parkean.

19:30 **Udabarriko kontzertuak, San Martin eleizan**: Seber Altube Korala (Gernika), Itxartu abesbatza (Algorta), Zoli abesbatza (Zamudio) eta Zamudioko Kamara Korala.

20:30-23:30 **Zutik elektrotxarangea**, Agirre Lehendakaria plazatik.

23:30 Kontzertuak, Sabino Arana plazan: **Dupla + Zirkinik Bez + Dj Vithy**.

Maiatzak 26, domeka

11:00 **Zamudio Ezagutuz familia-martxa**, Sabino Arana plazatik urtenda, Lagatzu alkarateagaz.

18:00 **Euskal dantzak**, Hiru Bat dantza-taldeagaz, Agirre Lehendakaria plazan (eguraldia txarra badago, frontoian).

19:30 **Bocabeats Comedia**, Sabino Arana plazan.

Maiatzak 27, astelehena

16:00 **Karta-txapelketa**, Adintsuen Etxean.



**Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK – ESTETIKA-ORTODONZIA

Areiltza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



IZ
ILE APAINDEGIA
946036943

Txanlagortz 42
ZAMUDIO

iz.ileapaindegia@gmail.com



**ZAMUDIO
Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

gaitu. Domekan, maiatzaren 26an, "Zamudio ezagutuz" izeneko familia-martxa egingo dogu; jarduera barria da, edade desbardineta pertsonen alkarregaz disfrutatzeko pentsatuta. Bukatzeko, domeka arrastian, Bocabeats Comediaren bakarriketaz gozatzeko aukera izango dogu.

Ekintzarik azpimarratuko zeunke bereziki?

Gatxa da ekintza bakarra aukeratzea. Badagoz oso arrakastatsua diran ekimenak: sukalki txapelketa, adin desbardineta pertsonen alkarregaz egoteko aukera emoten deuskuna; asteleheneko meza nagusiaren osteko luntzeko solasaldia; kontzertuak; euskal dantzak; kalejirak, erromeria... Jarduera horreek sano zaintzen doguz, jakin badakigulako herritarrek gustoko dabezala.

Zein da jaien helburua?

Herri osoak disfrutatzea eta adin desbardineta pertsonen alkarregaz egoteko moduko aukera izan dagiela.

Nola atonduko da jai-esparrua?

Adin desbardineta gustoko jarduerak antolatzeaz gain, jaiak herriko kokapen desbardineta zabaldu doguz, hala nola Sabino Arana plazan tuxpina, gaueko kontzertuak eta monologoa; Bidekoetxe parkean Tortilla eta Sukalki txapelketa, erromeria eta egurrezko jolas mitologikoak; San Martin eleizan abesbatzen kontzertua; Adintsuen Etxean adinekoei zuzendutako jarduerak...

Eraso sexisten kontrako protokolorik egongo da?

Jakina. Azken urteetan egin dogun lez, gaez puntu morea egongo da, barikuan eta zapatuan, jai-esparruaren aurrean, 22:00etatik 01:00era. Han informazioa eta laguntza ipiniko da herritarren eskura. Ganera, eraso sexistarik jasan edo ikusi

ezkero, 633 196 014 telefono-zenbakira deitu ahal izango da, gaueko 22:00etatik hurrengo goizeko 10:00ak bitartean, ala Brigada Feministaren kideengana jo leike; honeek zapi morea izango dabe jantzita. Jaiak bakean igarotzea eta pertsona guztiekiko errespetua nagusitu daitela espero dogu, baina holan ez balitz, Zamudio Udalak eta Zapata Gorriak alkarteak adostutako protokoloaren bitartez erantzun jakoa.

Amaitzeko, zer espero dozue aurtengo Pazko jaietatik?

Herritarrek euren laguntzagaz antolatu dogun programaz gozatzea dogu helburu. Eta ez eurek soilik, alboko herrietako lagunak be ondo etorriak dira, beti lez, eta etortera animatzen dodaz. Mereziduko dau! Baina, batez be, lehenago aipatu dodan lez, jaiak bakean eta pertsona guztiekiko errespetuaz igarotzea espero dot.



Dupla taldea

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

Ile-apaindegia

M^a Antonia Llodio TXP

Txorielko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO



PAZKO JAIK 2024

Maiatzak 20tik 27ra
ZAMUDIO

Kalejira, kontzertuak, erromeria, sukalki eta tortilla txapelketa,
umeentzako tailerrak, familia-martxa eta monologoa...

ERDU ETA PARTE HARTU!

Zamudioko Udaletik, jaiak bakean, danok alkarregaz eta
inongo eraso barik ospatzea itxaroten dogu!



www.zamudiokoudala.net

Zaletasunari berriko ekinez



t: Antonio Olalde / a: Emaus

Antonio Olalde naiz, Derioko PAI Bitartean eguneko zentroaren erabiltzailea, eta zaletasun handia dut: palan jokatzea. Zaletasuna familiarengandik datorkit, izan ere, aitak pala luzeko Bizkaiko txapelketak jokatzeko zituen zaletu mailan, eta nigan berak bultzatu zuen kirol aparta honetarako zaletasuna. Egia esan, ez dut inoiz federatu moduan jokatu; gogoz eta lehiatzeko asmo gutxirekin jokatu dut beti, baina, hori bai, modu jarraituan 35 urtetara arte.

Ondoren, urte askoan, beste zeregin batzuetan ibili nintzen, baina PAI Bitar-

tean zentrorra ailegatu nintzenezan berriro ekin nion zaletasunari. Derion, hala ere, pala egokituan jokatzeko da, eta modalitate ezberdinak izan arren, berdin-berdin jokatzeko da. Ezberdintasunak material-motari daude lotuta: adibidez, pala egokituak exigentzia-maila txikiagoa du, gutxiago pisatzen du eta, larruzko piloten ordez, tenis-pilotak erabiltzen dira. Berriro hasi naiz palan jokatzeko eta oso pozik nago. Gainera, Lantegi Batuak Fundazioko erabiltzaileak gurekin entrenatzen dira martitzenetan, eta oso talde atsegina osatu dugu, zeinetan palaz gozatzen baikara. Are gehiago, txapelketaren bat antolatzerara ere animatu gara.

Beste alde batetik, eguneko zentroan Ganbara Gizarte Irratia dugula aprobeztatuta, elkarrizketa egin diegu bi palajokalarari bikaini: Roman Maldonadori, munduko txapelduna dena, eta Asier del Rio lezamarrari. Era berean, haiekin batera parte hartu dugu beste egitasmo eta ekintza batzuetan, eta erakustaldia egin digute palan erabili daitezkeen materialari buruz.

Hau guztia oso atsegingarria izan da, zeren eta hainbeste gustatzen zaidan kirola berriro egiteko aukera eman baitit. Horri lotuta, espero dut pala-saioez gozatzen jarraitzea eta kirol honetako jokalaririk handiak ezagutzen segitzea.

Konekta zaitez gurekin!



Parte hartu aikor.eus webgunean
Zure argazkiak eta albisteak bidali

E-posta:
aikortxori@aikor.com

WhatsApp:
688 86 41 35

Ikusmen artifiziala

t: *Xabier Diaz*

Mariak (izen fiktizioa) 57 urte zituen saiakera hasi zenean. Hamasei urtez itsu egon eta gero, Eduardo Fernández Joverrek Miguel Hernández unibertsitatean zuzentzen zuen ikerketa taldearen eskuetan jarri zen. Horiek inplante bat jarri zioten burmuinean, eta harrezkero zenbait letra eta forma bereizteko gai da. Ez, ez diote ikusmena berreskuratu, baina 2021ean hasitako lan honek atea irekion etorkizuneko ikusmen artifizialari.

Objektu bat ikusteko, hark islatzen edo igortzen duen argia gure begian sartzen da, eta horren atzeko partean, erretinan, dauden zelula batzuek (konoek eta bastoiek) argi hori kinada elektrikoak bihurtzen dituzte. Nerbio optikoak jaso, eta interpretatu egingo dituen burmuinera bidaltzen ditu.

Mariari bertan, ikusmenaren kortexean, inplante bat jarri zioten, giza hari bat baino meheagoak ziren 96 elektrodo zituena. Elektrodoak estimulatzerakoan fosfenoak antzematen dira. Horrela deitzen zaie estimulu mekaniko, elektriko edo magnetiko baten iturria duten eta ikusten ditugun argiak, gure begiaren ikusmen "normalaren" bidezkoak ez direnak.

Betaurreko batzuetan txertatutako kamerak erabili ziren inplanteari informazioa bidaltzeko, eta sei hilabeteetan egindako ikerketan, Maria letra batzuk eta forma sinpleak identifikatzeko gai izan zen.

Alde batetik, begia eta nerbio optikoari *bypass* egiten diegunez, ez du inporta ikusmena galtzeko arazo non izan den. Bestetik, horrela izanik, burmuinera helduko den informazioa ikusmen biologikotik oso desberdina izango da. Horre-

gatik, ez da hainbeste ikusmen biologiko hori berreskuratzea, baizik eta ikusmen artifizial berri bat irudikatu, asmatu eta gauzatzeko lehenengo pausoak egiten.

Oraindik badago bidea egiteko. Alde batetik, kinaden intentsitatea ondo doitu behar da. Eragina izateko moduko intentsitatea izan beharko dute, baina ez burmuina kaltetzeko beste. Ez hori bakarrik, zenbatekoa izango da inplantean iraungipena? Doitasuna handitzeko, elektrodo gehiago beharko dira, txikiagoak eta gertuago daudenak, baina larregi hurbilduz gero, seinaleen arteko zarata handiagoa izango litzateke. Beste alde batetik, oraingoz ikusmena galdutako pertsonekin egin dira ikerketak, hau da,

ikusmen kortexa "trebatuta" izan dutenekin. Funtzionatuko ote du jaiotzetik itsuak diren eta, beraz, trebatu barik dutenekin?

Zenbait ikerketa martxan dira dagoeneko. Illinoiseko Unibertsitatea, adibidez, 400 elektrodo dituen inplante batekin saiakerak egiten hasia da, eta Neuralink, Elon Musk famatuaren neuroteknologia enpresak ere tximinoekin proba batzuk egin ditu jada. Hasiera baino ez bada ere, itsumenaren tunelean argia antzematen hasiak gara.

Gehiago jakiteko:

Visual percepts evoked with an intracortical 96-channel microelectrode array inserted in human occipital cortex, <https://www.jci.org/articles/view/151331>



a: Freepik / javi_indy

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8.00-22.00

PsikoNeuro
TXORIERRI

Psikologia eta Neuropsikologia
Navarra kalea 6, 3. solairua · Bilbo

611 172 488
@psikoneuro_txorierri

Torrealdy

TURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AMOLUJARIETZA

Jengibrea



a: Feepik / Azerbaijan_stockers

t: @txiribita_mundi

Zingiber officinale. Jengibrearen Asian du jatorria. Kurkumaren eta kardamomaren familiakoa da, eta Txinan Kristo baino 200 urte lehenagotik erabiltzen dute: oinarritzkoa da euren fitoterapiari eta sukaldean. Fitoterapiari bere sustraia edo errizoma erabiltzen da. Jengibrearen sustraia hura landu eta 8-10 hilabete beranduago jaso behar da. Errizoma gaztea bada, fresko erabili daiteke; sustraia zaharra bada, sikatu eta birrindu behar da.

Ur zaporeduna. Egokia da egun beroetan edo udan edateko. Jengibre freskoaren bizpahiru xerra zatituko ditugu, eta limoiaren edo limaren bi xerra lau zatitan ebakiko ditugu (ekologikoa bada, azala ere erabili dezakegu); gutxi gorabehera litro bat ur beharko dugu. Mazerazioa hotzetan egingo dugu: kristalezko botila batean jengibrea eta limoia ipini, eta ura botako dugu. Tapoia ipiniko diogu eta 4-8 orduan izango dugu jalkitzen (gau osoan ere utzi daiteke). Hozkailu barruan zein kanpoan izan ahal dugu beratzen. Ura amaitzen denean, gehiago bota dezake-

gu eta beratzen berriro ipini, jengibrea eta limoia gehiago aprobetxatzeko.

Propietate sendagarriak

Gosegarria da eta digestioa egiten laguntzen du, baita aireak botatzen ere (karminatiboa da). Bere ezaugarriak preziatuenetako bat da gonbitoia eta goragalea ekiditen dituela, bereziki bidaiek sortzen duten zorabioarenak. Azken kasu horretan, xerra mehe bat hartu behar da, eta mihi azpian ipini; eragina denboratarte laburrean nabaritzen da. Umedunek zein umeek erabili dezakete. Beste aldetik, digestio astunak arintzeko, infusioa edan daiteke, bakarrik edo mendak, kamamilak, mihiluak... lagunduta.

Espektoratzailea da, mikrobioen kontrakoa, eta lagungarria, sukarrak behera egiteko. Hortaz, hotzeria, gripea eta katarroa arintzeko erabiltzen da. Infusioa edan dezakegu ekinazeak, intsusa-baiek edo ezkaiek lagunduta. Jengibrearen bizkortze-proprietateak ditu, eta pertsona hozbeki neguan edan dezakete hotza astintzeko. Hanturaren kontrakoa eta rubefazientea da: mukosa narritatu eta gorritzen du;

ondorioz, zirkulazioa areagotzen da eta analgesia da emaitza. Erreuma-minak arintzeko erabiltzen da, hala nola artritis eta lumbagoa. Kurkumarekin nahasi daiteke.

Zirkulazio-sistema bizkortzen du, eta berakata eta aspirina bezala, antikoagulatzailea da; azken hori lagungarria da odolak era jariakorragoan zirkulatzeko. Bihotza zein zirkulazioa bizkortzen ditu, eta barizeak eta hanka nekatuak arintzeko erabili daiteke. Emakumeen kasuan, hilekoa etortzea eragiten du, eta mina arindu eta hanturak behera egiten laguntzen du. Hilerrililiarekin, salbiarekin, zizarebelarrekin edo kurkumarekin nahasi daiteke. Beste landare batzuekin nahasiz gero, hala nola ekinazearekin, intsuslandareekin eta ezkaiekin, handitzen da bere efektu antibiotikoa, antiseptikoa eta mikrobioen kontrakoa.

Infusioa. Modu egokian egingo dugu, ezaugarri lurrunkorrek aprobetxatzeko. Berakata sakatzeko gailua erabilita, zati txiki pare baten zuku aterako dugu kikara batean (gailurik ez badugu, apur

bat zapalduko dugu). Ur beroa gehitu, eta jalkitzen utziko dugu estalkia ipinita. Limoi-zurrusta txiki batekin eta ezti apur batekin edan dezakegu. Egokia baino ego-kiagoa da katarroa eta gripea arintzeko, edo infusio digestibo moduan, neguan hotza astintzeko.

Kontraindikazioak. Jengibre sikua eta bere olio esentziala ezin da kasu haue-
tan hartu: haurdunaldian, edoskitzaroan,
ultzera gastroduodenala badugu edo
botika antikoagulantea hartzen bada.
Larruazalean erabiliz gero, zukuak sor-
de-zake erreakzioa, azkura edo lehortasuna.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagu-
tzen duzuna; hartu neurritz eta soilik
lekuan asko badaude; ez eraman
dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik
erabiliko duzun landarearen zatia; ez
atera sustraitik, moztu ondo hazten
jarrai daitezten; ez moztu loreen %
20 baino gehiago, zuhaitzak edo
zuhaixkak badira; hartu bakarrik
erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal
zara, edo beste leku batzuetara joan;
ez jaso gune babestuetan edo parke
naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen

ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko
basoetan; toxikorik erabiltzen ez den
ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ
areketan, fumigatutako landetan eta
ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondo-
ren; hartu hostoak erabiliko ditugun
egunean bertan; hartu loreak goizean
eta sustraiak arratsaldean; landareak
gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera
denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak,
paperezko oihalezko poltsa, zumezko
saskiak...



Zingiber officinale

a: Wikimedia commons / Franz Eugen Köhler

TALDEA  **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



Zainzuriak ilarrekin

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 16 zainzuri
- 200 g ilar
- 4 arrautza
- 16 patata txiki
- 12 tipulin
- Koilarakada bat irin
- Olinoa
- Gatza
- Perrexila

Prestatzeko era:

Lehenengo eta behin, arrautzak, patatak eta zainzuriak egosiko ditugu. Arrautzak 8 minutuan egosiko ditugu; patatak, 12 minutuan; eta zainzuriak, 14 minutuan. Patatak zuritu, eta gordeko ditugu; zainzuriak ere gordeko ditugu kazola barruan. Tipulinei bizarra eta zurtoin berdea moztuko diegu, eta lehen geruza kendu. Kazola batean sueztituko ditugu olio apur batekin. Ilarrak gehituko ditugu

eta gatza botako diegu. Ondoren, irina gehituko dugu eta apur bat sueztituko dugu. Zainzuriak egosi ditugun ura hartu, eta apur bat botako dugu. Ondo eragingo dugu. Tipulinak ere botako ditugu eta zortzi minutuan egosiko ditugu ilarrekin batera. Azkenik, zainzuriak, patatak eta arrautzak gehituko ditugu, eta lau minutu gehiago izango dugu su ez-tian. Perrexila erabiliko dugu apaingarri moduan.



Hegaluzez betetako kaneloiak

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 20 kaneloi-orri
- 6 arrautza
- 300 g hegaluze
- 100 g tipula (sueztitua)
- 200 g emmental gazta
- 100 g irin
- 100 g gurin
- 2 edalontzi tomate-saltsa
- Litro bat esne
- Ura
- Gatza
- Oregano apur bat
- Intxaur muskatu apur bat

Prestatzeko era:

Bexamela egiteko, lehenengo eta behin gurina zartagin batean urtuko dugu. Irina gehitu, eta apur bat txigortuko dugu. Esnea pixkanaka-pixkanaka gehituko dugu. Gatza botako dugu, baita intxaur muskatu apur bat ere. Su ertainean egingo dugu, eraginez harik eta nahi dugun loditasuna hartzen duen arte; gordeko dugu. Beste aldetik, arrautzak zortzi minutuan egosiko ditugu; urtetatik atera, eta zurituko ditugu. Arrautzak, tipula eta hegaluzea nahastu,

eta dena txikituko dugu ore lodia egiteko. Kaneloiak kutxan adierazitako denboran egosiko ditugu. Uretatik aterako ditugu, eta orez beteko ditugu. Tomate-saltsa oreganoz hautsezatuko dugu eta labean sartu daitezke ontzi batean zabalduko dugu. Kaneloiak ipiniko ditugu, eta bexamela botako diegu gaineretik. Gazta arraspatuz hautsezatuko dugu. Labera (aldez aurretik berotuta) sartuko ditugu zortzi minutuan 250 gradutan.

Zazpi ezberdintasunak

Topatu zazpi ezberdintasun Lezamako argazki honetan. Zer falta da? Zer dago sobera? Zer lekuz aldatuta?



2, eguna

Dirulaguntzak: Txorierriko kiroledegiak eta putzu septikoak. [LEZAMA](#) Udal-bulegoan. Maiatzaren 31ra arte.

3, domeka

19:00 **Hitzaldia:** "Guggenheim Urdaibai STOP". [LARRABETZU](#) Ludotekako aretoan.

4, zapatua

10:00 **Bizkargi Egunaren bezpera:** igoera; 12:00: mahaingurua, ekitaldia, bazkaria, trikipoteoa; 18:00: kontzertuak: Larru eta Lagunak eta dj-a. [LARRABETZU](#) Ernaik antolatua.

12:00 **Gazte Eguna:** sormen-tailerra, bazkaria eta kontzertuak: Nazka, Steady Rockets eta Amooma. [LOIU](#)

5, domeka

17:00 **Bizkargi Eguna:** txosna, ekitaldia, erromeria... [LARRABETZU](#)

6, astelehena

16:00 **Izena ematea:** Uda Txikia eta Uda Gaztea. [LEZAMA](#) Liburutegian eta online. Maiatzaren 17ra arte (19:30).

7, martitzena



17:30-20:00 **Ikastaroa:** Danbor-banda feminista. [LEZAMA](#) Uribarri Topalekuan. Gainerako saioak: maiatzaren 21ean eta 27an.

8, eguaztena

Gym Berdea. [LARRABETZU](#)

19:00 **Hitzaldia:** Osasun publikoa. [LARRABETZU](#) Ludoteka gaineko solairuan. LOPAK antolatua.

9, eguna

18:00 **Hitzaldia:** Barbara Ruiz, UNRWA Euskadiko ordezkaria. [LARRABETZU](#) Angulerin kultur etxean.

10, barikua

18:00 **Zineforuma:** Pedro Almodovarren *Madres paralelas* pelikula. [LEZAMA](#) Kultur Aretoan.

11, zapatua

Udaberriko Kontzertua: Ekidazu abesbatza (Lezama), Irutasun abesbatza (Algorta) eta Gaudeamos Hodie abesbatza. [LEZAMA](#) Andra Mari elizan.

12, domeka



09:30 **Trail-proba.** [LOIU](#) Abadetxe kalean.

10:30 **Auzolana:** Panpa-lezka kentzea. [LARRABETZU](#) Sasineko gasolindegaren ondoko aparkalekuan.

18:30 **Domekak Hori Bain:** Esanezin. [LARRABETZU](#)

14, martitzena

18:00 **Musika Eskolaren kontzertua.** [LARRABETZU](#) Anguleri kultur etxean

15, eguaztena

Baserritarren Eguna: azoka txikia, ibilaldia eta bazkaria. [LARRABETZU](#)

16, eguna

19:00 **Literaturaz Berbetan:** *Mundu zitalaren kontra*, Lizar Begoña berbalagun. [LARRABETZU](#) Ludoteka gaineko aretoan.

17, barikua

Hitzaldia: Oilagorri buruzko jardunaldiak. [DERIO](#) Hotel Seminarioan. Maiatzaren 19ra arte.

18, zapatua

Kuadrilla Eguna. [LARRABETZU](#)

19, domeka



09:30 **Burdin Hesia XCO.** [LEZAMA](#) Zorribikek antolatua.

21, martitzena

19:00 **Zinekluna:** *Everest, el lado oscuro.* [LARRABETZU](#) Udaletxean.

22, eguaztena

18:00 **Musika Eskolaren kontzertua.** [LARRABETZU](#) Anguleri kultur etxean.

23, eguna



18:00 **Hitzaldia:** IKTak eta sexualitatea. [LARRABETZU](#) Anguleri kultur etxean.

24, barikua

Oinez ilargipean. [LARRABETZU](#)

30, eguna


Hitzaldia: Institutuan hastea. [LARRABETZU](#)

31, barikua

19:30 **Musika Eskolaren kontzertua.** [LARRABETZU](#) Andramari elizan.




ONDO PASA ZAMUDIOKO JAIETAN!



ama 3
taberna

PAZTOAK
PLATER COMBINATUAK
HAMBURGESAK
OGITARTEKOAK
TORTILLAK
PINTXOAK



613 664 767
LEHENDAKARI LEIZAOLA, 7, ZAMUDIO

**ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



Pikoteo Taberna

KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 782



**TOLDOS
TXORIERRI**
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegi ondoan



Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira




LAGATZU
ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA



Errentaren aitortpenak
egiten ditugu

944 521 328
asesoriadiza@gmail.com
Talleri, 3 behea
48170 ZAMUDIO



ASESORIA DIZA
Fiskala – Laborala – Kontablea

Gorbela, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA





STIHL

HARRO EGON LORATEGIAZ

STIHL BATERIAREN
PREMIUM KALITATEARI
ESKER.

2024KO UDABERRIKO ESKAINTZAK



ASTIKENE industrialdea, Berezi 23C
(Bilboko aireportuaren ondoan)
48160 DERIO BIZKAIA

info@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com
944 540 652 📞 688 633 197

AI III

AS III
SYSTEM

AK III
SYSTEM

AP III
SYSTEM